

**2017KO AURREKONTUAREN
MEMORIA ETA EZAUGARRI
NAGUSIAK**



2017KO AURREKONTUEN MEMORIA

Iritsi da unea 2017ko aurrekontua aurkezteko.

Aurrekontua lan tresna bat da, finantza administraziokoa, zeina oinarria den planifikatzeko urtean zer proiektu egin eta zer lerro estrategiko jorratu behar diren. Abiatuta dauzkagun baliabideetatik eta jakinda horiek zertarako diren, aurrekontuan zehazten da zer proiektu, zerbitzu eta jarduera egin nahi dugun urte osoan.

2017ko aurrekontuak gordetzen ditu aurreko urtearen lerroak, zeina abiapuntua izan zen legealdi honetako plan estrategikoa exekutatzeko. Legealdiko proiektua integratzen duten oinarritzko kontu sailak mantendu egiten dira, baina berri batzuk agertu dira, hartzen dituztenak programak eta proiektuak, zuzenean lotuta Gobernu Programarekin, legealdi hasieran egina.

Jarraitzen dugu betetzen aurrekontua egonkortu eta finantza iraunarazteko Legearen arauak, zuzenean eta etengabe eragiten digutenak. Nahiz eta ez duen ematen beharko dugula mailegurik legealdi honetan, indarrean dagoen lege esparruak, oso zorrotza eta murriztailea, behartzen gaitu lehenestera zor publikoa beste edozein gasturen aurrean, eta horrek galarazi egiten du udaleko diru kutzak kudeatu ahal izatea era librean. Egoera honek uzten gaitu Madrilen nahiaren mende, eta maniobra marjina txikia dugu.

Halaber, hurbiletik jarraitzen dugu zer eboluzio duen Foru Funtsak, haren aurreikuspenak eta likidazioak, eta horrek egiten gaitu zuhurrak aurrekontuak egiteko orduan, izan ere, larregiko baikortasunak izan dezake ondorio gisa deskoadratzea itxiera eta ezin exekutatu proiektuak edo abian jarri pentsatutako zerbitzuak. Bestalde, hainbat informaziok, zerikusia dutenak KUPOarekin, dioskue agian udalek diru kopuru handiak itzuli beharko dituztela, eta zerga bilketa, 2017rako aurreikusia, txikiagoa da 2016koa baino, batez ere, katastroko azterketaregatik, duela gutxi egin a Gipuzkoako Foru Aldundiak, zeinak aztertu dituen ondasun higiezinaren balioak eta ezarri dituen balio berriak, eta horrek ekarriko du diru bilketa txikiagoa udalean. Era berean, udalak erabaki du mantentzea hainbat zerga eta tasa, adibidez EIOZ, MIZ, edo zabor tasa, direnak ia zerga bilketa osoaren % 27. Ur tasan aplikatzen da % 1eko igoera, eta gainerako tasa eta zergetan % 2koa.

Informazio horiek guztiek egiten gaituzte zuhurrak eta aurrekontu batzuk egitea arrazoizkoak eta errealistak, lehenetsiko dituztenak proiektuak, baina, hala ere, bide ematen dute pentsatutako ekintza estrategikoak egin ahal izateko legealdian, oreka bat bilatuz beti diru sarreren eta gastuen artean.

Iaz nabarmendu genuen pertsonal gastuak eta udal zerbitzuen funtzionamendutik etorritako gastua batuta, gainditzen zutela gastuaren % 60, udalak eskuragarri zeukan aurrekontu osoari buruz; hortaz, funtsezkoa zen norberaren baliabideak erabiltzea ahalik eta eraginkorren.

Tokiko gobernu berria iritsi zenean, antolamendu eredua aldatu egin zen, batzorde kopurua gutxitu zen, 13tik 8ra pasatu baitziren, izan ere, asmoa da udal ugariren joerari jarraitzea, non sailak zenbat eta osatuagoak eta transbertsalagoak izan, erantzuna den orduan eta globalagoa eta berritzaileagoa, eta sortzen dituzte sinergiak eta ihes egiten dute sail gehiegi edukizetik, zerbitzu osoagoak eta globalagoak emateko herritarrei.



Aurreko aurrekontuaren kontura, kontu sail bat jarri zen udalaren antolaketa azterketa bat egiteko, zeinak oinarriak ezarri zituen bigarren pauso bat emateko, gauzatuko dena agintaldiko bigarren urtean, diseinatzeko barne funtzionamendu eraginkorrago bat.

2017KO AURREKONTUAREN IDEIA OROKORRAK

1) GIZARTE ONGIZATEA

2017ko aurrekontuak jarraituko du lehentasuna ematen herritarren ongizateari dagozkion helburuei; hortaz, mantendu egiten dira gizarte prestazioak. Lehentasuna da pertsonak, eta lan egingo da gizarte kohesioa bermatzeko. Ildo horretan, eutsi diegu laguntza eta programa sozialei, eta konpromiso irmoari horiek handitzeko, hala behar izanez gero.

Hala ere, berritasunak ere sartuko dira gizarte ongizatearen gainean, izan ere, kontu sail berri bat dago, 25.000 eurokoa, ekintzen programa bat proiektatzeko eguneko zentro moduan pertsona nagusientzat, baita ere, kontu sail berri bat dago, 7.000 eurokoa, instalazioek mantentze lan egokia izateko pertsona nagusien etxeetan.

Karterako dekretu berriak, onartua Eusko Jaurlaritzak aurreko legealdian, gizarte zerbitzuen mapa berri bat ezartzen du Gipuzkoan, eta zehazten du zer zerbitzu eman behar dituzten udalek, baina modu komunean, eremu geografikoetan.

Helburua da hobetzea sare publikoaren antolaketa, lurralde antolamendu batez, eskaintza egokitzea estaldura helburuak finkatuz eta egokitzea gizarte beharren eboluzioa, eta lortzea lurralde oreka bat.

Debagoieneko udalerrri guztien artean batera eman beharreko zerbitzu batzuen artean dago gaueko abegi zerbitzua (aterpea eta/edo neguko etxea), zeinari ezarri zaion 5.000 euroko kontu sail bat, aztertu dezan zer aukera dagoen baterako zerbitzu hori Arrasaten ezartzeko.

Halaber, eta Iturbide Egoitzari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako plangintzan, erabiltzen ari den egutegiari dagokionez egoitza Kabia foru erakundearen sartzeko, pentsatuta dago 2018ko bigarren seihilekoan; hortaz, 2017ko aurrekontuak jarraitzen du erakusten udalaren diru laguntza aurrekontuaren defizita estaltzeko, 18.701,23 euro.

2) ENPLEGUA

Gure konpromisoa enpleguarekin, guztiz lehentasunekoa, agertzen da kontu sail batzuetan, langabeak kontratatzeke eta gazteentzako programa batzuetarako. Horrela, ezin denez berriro argitaratu gazteentzako beka programa LANBIDEREkin eskumen inbasioko gatazka bat dagoelako, erabaki da proiektatzea programa berri bat gazteei laguntzeko lan merkatuan sartzen, karrera bukaerako proiektuaren bidez, lanposturako behar den prestakuntzaren bidez, etab. Horretarako, artikulatu dira 70.000 €.

Gainera, ekimen berri bi bultzatu dira enplegua sortze aldera (20.000 €): diagnostiko bat kanpotik Arrasaten ezartzeko eta horri dagokion merkataritzako ekintza plana, eta bideragarritasun proiektu bat, jakiteko udal titulartasuneko lursailetan zer enpresa jarduera egin daitekeen.



Jarraituko dugu azpimarratzen kolaborazio publiko-pribatuan, zeinak ardatz nagusia izango duen enplegua udalerriko hainbat eragilerekin, hala nola Mondragon Unibertsitatea, zeinarekin antolatuko dugun LANBAI enplegu azoka (25.000 €), edo CEI SAIOLAN-ekin, zeinarekin daukagun lankidetzaren hitzarmen bat enpleguari buruz (20.000 €). Sartu da ere kontu sail berri bat, 10.000 eurokoa, kongresuetako jardueretarako, ulertzen baitugu administrazioak ahalegin gehigarri bat egin behar duela kongresuak eta jardunak egin daitezen Arrasaten, lan eta enpresa eremuarekin lotuak, gure udalerrira trakzio buru bihurtzeko Debagoienean.

3) INBERTSIOAK

Inbertsioek erakusten dute argi eta garbi zer proiektu estrategiko egingo den legegaldian, izan ere, kontu sail gehienak urte anitzekoak izan behar dira.

Esaten genuen legegaldi hau izan behar dela auzoetara hurbilduko dena, auzo asko eta asko urrun baitaude erdialdetik, eta inbertsioei buruz, lehenasuna izan behar zutela auzoetan. Hala, ezarri da kontu sail bat 50.000 eurokoa Makatzenako igogailuaren proiekturako, samurtu dezan bidea auzora iristeko, eta kontu sail bat 300.000 eurokoa jardun integral bat egiteko pilotalekuan, parkean eta aparkalekuan, auzo horretan bertan, ingurua berriro urbanizatzea eta estalki berri bat parkean eta pilotalekuan.

Jarraituko dugu haur parkeak hobetzen auzoetan, eta 2016an jarri genuen kontu sail bat Gorostiza parkeko estalkia proiektatu eta exekutatzeko, eta parkeak hobetzeko ere bai. 2017ko aurrekontuan, berriz, kontu sail bat jarri da haur parkeak berritzen jarraitzeko.

Halaber, jaso da aurrekontu kontu sail bat, 340.000 eurokoa, Uribarriko atzealdea hobetu, garbitu eta berriro urbanizatzeko, eta errekuperatu behar dugu berezko ondarea Tokiargiko teilatua konponduko baitugu (100.000 €).

4) EUSKERA

Euskarari eman gura diogu toki agerikoa eta nabaria gure udalerrian. Ahalegin handia egiten ari gara Arrasaten euskara ikasi eta erabili dadin sustatzen, eta baliabideak eta esfortzuak jartzen ditugu gure herritarrek ikasi dezaten, herritar berriak integratu daitezen gure gizartearen zutabeetako baten bidez: gure hizkuntza. Helburu horrekin, eta udal euskaltegiak lokal egoki baten eskariari erantzuteko, lekuz aldatzea aztertuko da Kulturola eraikinaren proiektuaren esparruan.

Halaber, zuzendu da kontu sail bat, 6.000 eurokoa, kartelak jartzeko gure udalerraren sarreran, balioan jarriko dutenak herri euskaldun batean bizi garela. Barrura begira, barne antolamendu berri batek, zeinak organigraman Euskara saila eramaten duen alkatetzara, helburua du trantsizio bat egitea, euskaltegiko langile profesional eta kualifikatuak lagunduta, Euskara sailak, garai batean klabea izan zena, berriro ere eskuratu dezan bere osperik handiena.

5) BERDINTASUNA

Beste inbertsio erabakigarri eta estrategiko bat da Emakume txokoaren leku berria. Proiektua lehendik idatzita bazegoen ere egoitza exekutatu eta lekuz aldatzeko beste leku berri batera, leku seguruagoa Uarkapetik hurrean, saiatu garenaz leku horri buruz talde politikoekin akordio politiko batera iristen, berriro jarri da mahai gainean beste leku batzuk ere badaudela, eta



kontuan hartu da, gainera, areto bat sartzea proiektu berrian, bularra emateko haurtxoei. Horretarako gutzirako, jarri da kontu saila bat, 50.000 €-koa.

Gainera, Berdintasun sailetik egin behar da ahalduz prozesu bat emakume etorkinarentzat, eta proiektu horri erantzuteko, sartu da 5.500 €-ko kontu sail bat.

6) HIRIGINTZA ETA MUGIKORTASUNA

Mugikortasunari dagokionez, 2017an jakingo dugu zer emaitza izan dituen mugikortasun plan berriak, zeina abian jarri den duela gutxi, kontuan hartuta aurreko plana dela 2005ekoa. Plan horrek markatuko ditu lehentasun helburuak gure udalerraren mugikortasunean, nahiz eta sartu den 18.000 euroko kontu sail bat markesina berriak eta bus geltoki berriak jartzeko, lehenetsita garraio publikoa erabiltzea.

Oinezkoak jarraituko du protagonista izaten. Aurrekontuaren aurreikusita daude ere alde zaharreko plana, 25.000 €-ko kontu sail batekin, eta lurzoruaren kalitatearen azterketa bat, 20.000 euroan.

7) INGURUMENA

Legealdiaren lehen urtean bukatu badugu Udala-Besaide proiektua, hainbat elementu errekerperatuta, hala nola labaderoa (aska), edo balioan jarrita ibilbidea bera seinaleen bidez informazio panelekin, eta hobetu bada Ingurumen Eskola, teiltua konponduta edo pilotalekua errekerperatuta, 2017ko aurrekontua ditu bi kontu saila, 20.000 eurokoak, landa ingurune publikoak mantentzeko eta ingurumen jarduerak egiteko.

8) MERKATARITZA ETA TURISMOA

Merkataritzak eta turismoak aurrekontu propioa dute legealdi honetan. Era berean, jarraituko dugu laguntzen herriko baseritarrei, eta saiatuko gara sortzen leku erakargarriak azokekin eta ekintzekin, herritarrek herrian bertan kontsumitu dezaten.

Halaber, kontu sail batzuk zuzendu dira merkataritza jarduerak (15.000 €) eta turismoa (20.000 €) finantzatzeko, hala nola sustapen jarduerak, balioan jartzekoak edo web orriak egitekoak. Azken batean, hedatzea turismoaren plan estrategikoaren ekintzak, abian jarria legealdi honetan.

9) TEKNOLOGIA BERRIAK

Teknologia berriek ere lekua dute 2017ko aurrekontuan, 10.000 euroko kontu sail batekin, bideratua dagoena teknologia berriak ezartzeko, eta beste kontu sail bat, 24.000 eurokoa ekintzetarako. Beste ekimen batzuen artean, finantzatu ditu APPak turismoa eta merkataritza garatzeari laguntzeko, eta, baita ere, demokratizatu gura ditugu teknologia berriak, herritarren eskura jartzeko wifi sarea, doan, herriko hainbat lekutan.

10) KIROLA



Kirolak, eremu inportantea legealdi honetan inbertsio handiak izango baititu, jarraitzen du bide bera, eta sartu da kontu sail berri bat, 50.000 eurokoa, balioa gehitzeko Uarkape pilotalekuari. Euskadin ikuskizunen Lege berriak, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen, galarazten du alkohola zerbitzatzea kirol instalazioetan (duela gutxi puntualizazio batzuk egin badira ere); hortaz, kontu sail hori da zerbitzu integral bat emateko lehengo taberna-jatetxearen eremuan, eremua desegin eta garbitzeko, kirol jarduera berriak, monitoreak eta kontrola pilotalekura bertara sartzeko.

11) HERRITARREK PARTE HARTZEA

Parte hartzearen kultura hartu dugu, ezberdinen artean akordioa lortzeko. Jarraitzen dugu lanean Innobasque-rekin, Berrikuntzaren Euskal Agentzia, gutxieneko akordio baten oinarriak jartzeko herritarren parte hartzeari buruz, lagunduko duena Arrasaten bizilagunen parte hartzea normalizatzen eta ofizialtzen, eta, horretarako, mantendu da 15.000 €-ko kontu saila, lagunduko duena parte hartze prozesuak finantzatzen.

Legealdi honetan abian jarri dira hainbat prozesu: Kirolaren mahaia, Gorostizan jolas parkeko estalkiaren parte hartze prozesua, zuhaitza aukeratzea Arrasate pasealekuan, Arbolapeta-San Frantzisko prozesua, horma irudia aukeratzea Gipuzkoa etorbidean, ideia lehiaketa bat Biteri eta Itxaropena plazetako parkeetarako, Mugikortasun Plan berria edo hirigintzako aholku kontseilua.

12) GAZTERIA ETA HEZKUNTZA

Gazteriaren eta Hezkuntzaren gaiari dagokionez, abian jarri behar da neskato-mutikoen kontseilua, alkatetzaren aholku organo bat moduan, iritziak eman ditzaten eta parte hartu dezaten bizi diren herriko erabakietan. Kontua da itzultzea herria neskato-mutikoei eta haiek kontuan hartzea obrak edo zerbitzuak planifikatu behar direnean. Horretarako, jarri da 20.000 €-ko aurrekontu bat.

Halaber, azterketa askok eta askok erakusten dute haurren eta gazteen ongizatea sustatzen inbertitzen dena eraginkorra dela pobrezia eta desberdintasuna gutxitzeko belaunaldien artean; hortaz, erabaki dugu handitzea hezkuntza interbentzioko zerbitzua % 42, kontu sail bat jarri, guztira 117.000 €-koa.

Gaur egun gazteentzat ez da erraza etxetik irtetea eta haien kontura bizitzea; horregatik, programa berri bat proiektatu da, alokairuetan laguntzeko gure herrian bizi diren gazteei, independente jartzen laguntzeko. Horretarako, artikulatu da kontu sail bat, 30.000 €-koa.

Halaber, jarraituko dugu txikienak kontuan hartzen, ez bakarrik haur parkeak hobetzeko, lehen esan bezala, ekintza jakin batzuk egiteko ere bai, haien aisia sustatzeko, adibidez izotz pista handiagoa Gabonetan.

13) KULTURA

Legealdiko proiekturik garrantzitsuenek, Kulturola eta Aprendices, jarraitzen dute izaten protagonismo zabala gure aurrekontuan. Zuzendu dira bina kontu sail, 625.000 €-koak, eraikin



bakoitzarentzat, jarraipena emateko proiektu oso aurreratu bati, zeinak asmoa duen bihurtzea erreferente kultura eremuan Arrasaten, eta Debagoieneko eskualdean ere bai.

Arrasate Musikal musika eskolak, behin-behinean egoera prekarioan orain 8 urtetik hona, azkenean izan behar du bere egoitza Aprendices eraikinean, azkenik eraikinaren titulartasuna lortu eta gero, izan ere, urteetan egon da SPRIren esku. Trukaketa arrakastaz burutu ostean eta proiektua idaztea LKS enpresaren esku dagoela, hark irabazi baitzuen lehiaketa publikoa, 2017ko urteak badu aurrekontua aurre egiteko obra exekutatzen hasteari.

Era berean, Kulturola eraikina, harentzat proiektua idaztea adjudikatuko baita 2016ko amaiera aldera, kultura talde eta elkarten egoitza izango da, eta hark ere aurrekontu kontu sail bat dauka, obrak egiten hasteko 2017ko amaiera aldera.

Apustua da estrategikoa. Legealdi honetan tamaina handieneko proiektua izango da eraikin bi horiek birgaitzea, erantzun egoki bat emateko kultura jarduera osoari, une honetan egoera eskasean baitago.

Nahiz eta hitz egin dugun Kulturola eta Aprendices eraikinei buruz esateko udalaren apustu estrategikoa eta kulturala direla legealdi honetan, sortu da ere kontu sail berri bat, 8.000 €-koa, horma irudiak pintatzeko eta gure herria apaintzeko, herriko artistekin eta kaleak betez artearekin.

14) SEGURITASUNA

Herritarren segurtasuna da klabea udalarentzat, eta frogak daude esateko herritarrak kezkatuta daudela ibilgailuen eta autobusen abiadura dela-eta, batez ere, herri barruko bideetan. Horregatik, nahiz eta gure apustua izan sakanguneen alde ibilgailuek moteldu dezaten abiadura, aurrekontuan jarri da kontu sail bat, 72.600 €-koa, hainbat radar jartzeko herriko leku problematikoetan, lagunduko dutenak ziurtatzen abiadura errespetatuko dela herri barruko bideetan.

Ildo horretan, erabaki zen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin biribilgune bat egitea Lanako bidegurutzean, bidegurutze oso arriskutsua, izan ere, leku horretan bat egiten dute trafikoak, bizikletek eta oinezkoek bidegorri baten bidez. Jakin dakigunez proiektua eginda dagoela, gure aurrekontuan jarri da kontu sail bat, 200.000 €-koa, elkarrekin finantzatzeko biribilguneko obraren exekuzioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak exekutatatu ahal izan dezan 2017ko urtean.

Laburpen moduan, errepikatuko dira udal aurrekontuaren ezaugarri nagusiak 2017an:

Aurrekontuak ditu iazkoaren antzeko ezaugarriak, hau da, plangintza lan inportante batekin, garatu behar dena 2017an, aztertu eta eztabaidatzeko legealdian exekutatutako beharreko proiektu nagusiak idaztea (Aprendices, Kulturola, Zalduspeko urbanizazioa, Makatzenako igogailua, bidegorria, Erguingo urbanizazioa, Arrasate pasealekua, Araba etorbidea, Emakume txokoa, kirol instalazioak eta abar).



- Ezartzen da lehentasunezko jardun eremu moduan neurriak hartzea eta jarduerak egitea, enplegua sortzeko, baita ere, bermatzea talderik erasanerrezenei eta ahulenei udal zerbitzuak ematea, funtsezko jotzen baitira (gastu soziala), gaitasun ekonomikorik ez izatea inoiz izan ez dadin motiboa horiez ez gozatzeko.

- Halaber, merezi du adieraztea 2017an egin behar den programa ekonomikoa dela zalantza barik zorrotza, izan ere, gastua kontrolatu egiten da eta eutsi egiten zaio gastuari, batez ere, borondatezko gastu arrunta izenekoak. Hori ez da traba zerbitzu jakin batzuk, oinarrituta haien interesean eta lehentasunean, haien diru baliabideen kopuruak handitzeko; horrela, saiatzen gara hobetzen horien kalitatea edo handitzen jarduera eremua.

- Era berean, indarrean dagoen lege-esparrutik datozen mugek, zer irizpide dagoen aurrekontua egonkortzeko, zorrari eusteko eta gastuaren eboluziorako (gastu erregela), sortzen dut, egitatez eta ez badago aldaketa esanguratsurik udalaren diru sarreraren egituraren, espiral moduko bat aurrekontuak etengabe gutxitzeko, hori guztia nahiz eta gauden egoera pribilegiatu batean, zorpetzearen ikuspegitik. Ohar positiboa 2017rako: espero da legez aldaketak izatea maniobra marjina apur bat emateko udalari, inbertsio gaitasuna hobetze aldera hurrengo ekitaldian.

- Legealdian proiektu estrategiko/lehentasunekoetan exekuzio iraunkorra egin ahal izateko, eta irizpidearen salbuespen gisa aurrekontuko diru kopuruak egokitzeko exekuzio aurreikuspenei (gastuen finantzaketa beharrak, obrako fakturak eta ziurtagiriak, onartzekoak ekitaldian zehar), azpimarratzen da gastuan aurreztearen ideia bera, helburu bikoitzarekin:

- ✓ Prebenitzea, 2018-2019 urteetan ez izateko zorpetzearen handitze deskontrolatua, hipotekatuko duena larregia hurrengo korporazioen finantza gaitasuna.
- ✓ Saihestea erreferentzia galera bat benetako lehentasunei buruz (zelan ez den beharrezkoa exekuzio ikuspegitik, gastatu daitezke beste proiektu edo destino batzuetan, eta gero, lehentasuntzat jo dena egin behar den unean, orduan arriskua dago finantzaketan zailtasunak izateko).

Esandako ispiritu aurrezle horren adibide garbia da 2016ko eta 2017ko aurrekontuen bidez lortu behar dela erreserbatzea, Kulturola eta Aprendizices proiektuak exekutatzeko, dotazio/aurrezte bat, 3,3 milioi eurokoa, eta horrela erraztuko da finantzaketa bat arrazoizkoagoa edo onargarriagoa, zeina exekutatu den, nagusiki, 2018tik aurrera.

- 2017 urterako, memoriaren hasieran esan bezala, egiaztatzen da izozte/murrizketa bat dir sarreretan, udal zergen bidez, eta hori gertatzen da, besteak beste, Udalak hartu dituen erabakiengatik 2017rako, finkatu dituen zerga tasak eta tasen tarifiak, eman beharreko zerbitzuenak. Erabaki hori da borondate kontziente baten ondorioz, ez gehitzeko zerga presio herritarrei oraingo krisi ekonomikoaren egoeran, hori guztia nahiz eta neurri jakin batzuek, hartu direnak beste eremu batzuetan, hala nola katastroa berrikusi izana Foru Aldundiak bultzatuta 2017-01-01etik aurrera, ekarriko duten gutxitzea diru sarreretan, zehazki, udalak kudeatzen duen zerga nagusian, hiriko OHZn (baita gainbalioaren zergan ere), beharrezko inportanteekin industria lurzoruan eta udalerriko hainbat eremutan katastro balioetan.

- Azkenik, iaz bezala, aurreikusi daiteke, nahiz eta neurri txikiagoan 2015ean baino, 2016ko aurrekontuen likidazioen testuinguruan (horien behin betiko kopuruak jakingo ditugu,



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

gutxi gorabehera, 2017ko martxoan), espero da agertzea soberakin edo superabit bat, gutxi gorabehera 2-2,5 milioi eurokoa. **Soberakin hori**, nagusiki gastuen proiektuen exekuzio erritmoari buruz hartutako erabakiengatik, baita ere, kontratazio prozeduren bidez lortutako ekonomiengatik, **aztertu eta eztabaidatuko da bereziki zelan erabili, kreditu aldaketen bidez, 2017ko urtean.**



Aipatu eta gero 2017ko aurrekontuaren alderdi kualitatibo esanguratsuenak, zenbatekoak agertuko ditugu aurtengo ekitaldirako aurreikusiak, bai Udalarena bai Iturbide Egoitza erakunde autonomoarena ere; hona hemen horiek:

Udalaren aurrekontua	31.520.472,44 euro
Iturbide Egoitzaren aurrekontua	3.401.526,21 euro

Aurrekontu orokor finkatua edo bi aurrekontuak batuta, barne transferentziak kenduta (defizita estaltzeko ekarpenak, eta Udalaren fakturazioak, erakunde autonomoari ur eta zabor zerbitzuak egiteagatik) kopuru hauxe dugu, **34.883.297,42 euro**.

2017ko zenbatekoak alderatuz gero 2016rako onartutako aurrekontuaren kopuruekin, koadro hau dugu:

ERAKUNDEA	AURREK. 2016	AURREK. 2017	ALDAERA	2017/2016
Udala	32.078,73	31.520,47	-558,26	-1,74%
Iturbide	3.433,77	3.401,53	-32,24	-0,94%
Aurrek. orok. (kopuruak mila eurotan)	35.512,50	34.883,30	-559,96	-1,58%

Kopuruak aztertu, eta baieztatuko dugu memoriaren hasieran adierazitakoa, hau da, 2017ko aurrekontu aurreikuspenak apur bat behera egiten duela iazko kopuruaren aldean. Gutxitze hori da ondorio logikoa, izan ere, diru sarreretan jarritako mugak (beheratzea diru sarreretan udal zergetan eta zorpetze murrizketak) gastuen eremura eraman dira.



Orain eta hemen, aztertuko ditugu, xehetasun maila handiago batez, udalaren aurrekontuaren gastuen eta diru sarreraren kontu sail nagusiak, eta ITURBIDE erakunde autonomoaren aurrekontuak memorian datoz azterturik erakundeak berak idatzita, agiri honetan bertan atal berezi gisa agertzen dena.

Hasiko gara Udalaren aurrekontua aztertzen gastuen ataletik.

GASTUEN AURREKONTUA 2017

2017ko ekitaldirako pentsatutako zenbatekoa guztira da 31.520.472,44 euro, eta hori da % 1,74ko jaitsiera bat iazkoaren aldean.

Aztertuta zer eboluzio duen 2017ko aurrekontuak kapituluz kapitulu, aurreko ekitaldiaren aldean, koadro hau daukagu:

KONPARAZIO KOADROA, 2017KO AURREK. - 2016KO HASIER. AURREK

Kapitulua	AURREK 2016	% S/T	AURREK 2017	% S/T	Aldea	16/17
I Pertsonal gastuak	10.468,6	32,63%	10.613,2	33,82%	191,30	1,83%
II Ondasunak eta Zerbitzuak	9.997,7	31,17%	10.492,4	33,29%	494,70	4,95%
III Interesak	27,1	0,08%	20,1	0,06%	-7,00	-25,83%
IV Transfer. arruntak	4.862,5	15,16%	4.715,9	14,96%	-146,60	-3,01%
V. Kreditu globala	20	0,06%	50	0,16%	30,00	150%
VI Inbertsioak	4.981,7	15,53%	4.041,3	12,82%	-940,40	-18,88%
VII Kapital Transf.	741,3	2,31%	1.049,1	2,44%	307,80	41,52%
VIII Finan. Akt. Aldak.	265	0,83%	180	0,57%	-85,00	-32,08%
IX Maileguen amortizazioa	714,8	2,23%	311,7	0,99%	-403,10	-56,39%
GUZTIRA	32.078,7	100%	31.520,4	100%	-558,26	-1,74%

(Kopuruak mila eurotan adieraziak)

Koadro hau aztertu eta ikusiko dugu, portzentajeetan, udalaren gastu globalari buruz, ia 2017ko aurrekontuek ez dutela aldaketarik 2016koari buruz. Aipatu liteke gastu arruntari buruz (I., II. eta IV. kapituluak) igoera bat (bere pisuan, ehunekotan, 3,1 puntukoa), zeina konpentsatzen den kapital eragiketen (VI.kap.-Inbertsioak eta VII.Kap.- Kapital Transferentziak) pisuaren jaitsiera batekin (-1,7 puntu ehunekotan) eta finantza zorrarenean (interesak+amortizazioak, zeina jaisten den 1,3 puntu ehunekotan).

Azken batean, kudeatu beharreko gastuaren zenbateko osoa gutxitzetik, gastu finkoak egotea zerbitzuetan (pertsonal gastuak eta ondasunak eta zerbitzu arruntak erostea), nahiz eta



finantza kargak diren txikiagoak, horrek behartzen gaitu inbertsioaren bolumena murrizten/neurriak ezartzen, behintzat, aurrekontuen hasierako onartze fase honetan.

Laburtzeko, hona hemen 100 eurotik zenbat eta zertan gastatuko duen Udalak 2017an:

- **33,82 €** erabili dira **pertsonal gastuei** aurre egiteko, eta hor sartzen dira Udalean egitekoak betetzeko liberaturik dauden udalkideen ordainketak.

- **33,29 €** behar dugu gastu arruntei erantzuteko, udal **zerbitzuen funtzionamendutik sortzen direnak**.

- **1,05 €** dira **banketxeekin** hartutako konpromisoak betetzeko (**maileguren interesak eta amortizazioak**).

- **14,96 €** dira **transferentzia arruntak edo diru laguntzak** finantzatzeko; horietatik **7,7 euro** dira udalen arteko zerbitzuen kuotak eta Iturbide Egoitzaren defizita (berez udal zerbitzuak dira).

- **12,82 €** dira **inbertsioen zuzeneko exekuzioa** finantzatzeko.


- **3,33 €** dira **beste administrazio edo erakunde batzuek** egindako **inbertsioak** diruz lagundu edo elkarrekin finantzatzeko.

- **0,57 €** erabiltzen da finantza aktiboak erosteko, hala nola **langileei aurrerakin itzulgarriak emateko** (diru-sarreraren kopuru berdina) **eta Garaia S.Coop.ren kapitalari ekarpena egiteko**.


Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zer eboluzio duen 2017ko gastuen aurrekontuak kapituluz kapitulu, 2016ko aurrekontuaren aldean, baita ere, 2017ko gastuaren portzentaje banaketa, sailkapen ekonomikoaren arabera edo, beste era batera esanda, gastuaren izaerari jarraiki.



2016 ETA 2017KO AURREKONTUAREN GASTUAK ALDERATZEA KAPITULUZ-KAPITULU



GASTUA BANATZEA KAPITULUZ-KAPITULU - 2017EKO AURREKONTUA





Orain aipatuko ditugu gastuen aldaera nagusiak eta 2017ko aurrekontuaren berritasun aipagarrienak, 2016ko ekitaldiko kopuruaren aldean, sailkapen ekonomikoaren edo gastuaren izaeraren arabera.

LEHEN KAPITULUA – LANGILEEN GASTUAK - 10.659.942,71 euro

% 1,83ko igoera du, 2016ko aurrekontuaren kopuruaren aldean.

Une honetan tramitazio fasean daude Estatuko aurrekontu orokorrak, 2017ko ekitaldikoak (oinarizko legeriaren izaerarekin, derrigorrean betetzekoa, azken urteotan Estatua ibili da erregulatzen, bere aurrekontu orokorren bidez, soldaten berrikuspen muga baimenduak), ez baitago norabide zehatzik 2017ko aurreikuspenak kalkulatzeko, eta banakako soldata kostuen estimazioak egin dira, sailez sail kapitulu honetan, 2016ko oraingo plantilaren arabera, gehitze aurreikuspenik gabe.

Aurrekoa gorabehera, soldata berrispenen bat egonez gero hura estaltzeko, sartu da kontu sail bat, funts edo erreserba izaera duena, izango dena alde negoziatzaileek (erakundeen ordezkariak eta ordezkariak sindikala) lortu ditzaketan akordioak finantzatzeko. Funts horren zenbatekoa da gutxi gorabehera 2017ko soldata masaren % 1, zenbatekoa borobilduta 105.000 euroko balioa. Erreserba funts hori da, sailen baten zirkunstantzia zehatz batzuei batuta (liberazio sindikala, aurrejubilaziorako primak), gehitze osoaren justifikazioa, pertsonal gastuen kapituluan izandakoa.

Lanpostuen zerrendari dagokionez, albora utzi gabe pertsonal dedikazioak berriro esleitu izana hainbat sail eta batzordetara, ez dira amortizatzen eta ez dira sortzen lanpostu berriak udal plantillan.

BIGARREN KAPITULUA - ONDASUN ETA ZERBITZU ARRUNTAK EROSTEA - 10.492.440,00 euro

% 4,9 handitu da 2016ko aurrekontuaren aldean, gastu handiagoekin, 494,7 mila euroko zenbatekoan (egokiturik kreditu globala kontu sailaren V. Kapituluera lekualdatzearen ondorioa). Kopuruetan, igoera hori dagokie, nagusiki, 5 kontu saili (zinemometroak alokatzea – 72,6 mila euro, egoera babesgabekoen azpik. zerbitzuak – 80 mila euro, kale garbiketako kontratu berria – 180 mila euro, parke eta lorategietako mantentze kontratu berriak - 157 mila euro eta kontu saila Uarkape pilotalekuan kudeaketa aldatzeko, taberna kendu eta zaintza ezartzea, garbiketa eta gimnasioa - 50 mila euro).

Oro har, 2017an mantentzen dira iazko kontu sailak aldaketa handirik gabe, nahiz eta “borondatezko gastu” izaerakoak diren batzuetan aplikatu behar izan den murrizketa irizpide bat, egokitu eta orekatzeko lehen aipatu diren kostu gehitzeak.

Laburpen moduan, aipatu daitezke aldaketa nagusietako batzuk 2016ko aurrekontuaren aldean, eta bildu dira aldaketa horren ikurraren arabera. Hala, hauek ditugu:



A- Gastuak igotzea

- **Kale garbiketako kontratu berria**, 1.480 mila euro (180 mila gehitzea), abian jartzekoa 2017ko maiatzetik aurrera. Lortu nahi diren helburu nagusien artean aipatu daitezke garbiketa baliabide material batzuk jartzea udalerriko kale guztietan, maiztasuna 3 egun astean, baita ere, eman beharreko zerbitzuak indartzea, izan ere, 2017an sinatutako kontratuan, garbitu beharreko gainazal berriak (Uribarri, Erguin, Nafarroa etorbidea...) handitu eta sartu ziren kostuak gehitu barik, eta egokitu zen garbiketa maiztasuna udalerriko beste eremu batzuetan; praktikan, horrek ekarri zuen emandako zerbitzuak murriztea (edo haien kalitatea).
- **Lorategien kontratu berria**, 779 mila euro (157 mila igo), abian jartzekoa 2017ko martxotik aurrera. Helburu nagusietako bat datza hobetzea eta homogeneizatzea lorategien mantentze zerbitzua, eman dena udalerriko kale gehienetan, eta igotzea edo egokitzea belar mozketen maiztasuna. Halaber, zerbitzua indartu nahi du kontratu berriren bidez, 2014an sinatutako kontratuaren aldean, eta aldatzea aurreko irizpidea, ez ordezteko enpresa adjudikaziodunaren langileak oporraldietan edo baja aldietan gaixotasunagatik, horrela lortzeko zuzenean hobekuntza bat zerbitzuaren kalitatean.
- **TAO kontratua**, 90 mila euro (+22,5 mila euro) – jasotzen du kontratua handitu daitezkeela, herriaren erdialdean ezartzeko sistema arautu bat, ibilgailuen aparkalekurako diren espazioak erabiltzeko; horretarako, aurrez egin eta garatu beharko dira, nahiko denboraz, beharrezko lan guztiak (proiektua, ordenantza, egoiliarentzako txartelen kudeaketa, kontratazio espedientearen kudeaketa eta abar), eta sistema bat inplikatuak parte hartu dezaten, hau da, berrmatzea lanak egoki aztertu eta planifikatu direla, sistema abian jarri aurretik.
- **Eguneko Arreta Zerbitzurako jarduera programa**, 25 mila euro. Mankomunitate mailan bailarako Gizarte Zerbitzuen Mapari buruz hasitako ikerketaren konklusioen kaltetan gabe, udal eskumeneko gizarte zerbitzu honen prestaziotik erator daitezkeen beharrei erantzuteko helburuz, lehenengo urte honetan, zerbitzuaren eskariari buruzko datu zehatzak izan gabe, ulertzen da aipatu dotazioarekin finantzatu daitezkeela urteko gastu eta konpromisoak.
- **Babesgabetasun Egoeran daudenei laguntza** emateko zerbitzua, 220 mil euros (▲80 mil). Aipatu zerbitzua eskaintzeko, 2015eko abenduaren 1etik aurrera indarrean sartu zen udalak IZAN INTERVENCIÓN FAMILIAR Y COMUNITARIA S.L gabineterekin sinatutako kontratua, zeinaren bidez hiru azpizerbitzu eskaintzen dio udal honi:
 - Familia eskuhartzea (terapeutak eta familia hezitzaileak)
 - Kasuen gainbegiratzea
 - Detekzio goiztiarra (Herriko eragileekin lan egitea: ikastetxe eta osasun zerbitzuak)



- **Gizarte eta hezkuntzako esku hartzea**, 117 mila euro (▲35 mila). Zortzi urteko ibilbide honetan, zerbitzua gauzatu da egoki, eta nerabe talde askorekin jarduten dute; haien profilak eta beharrak dira askotarikoak, eta lan egiten dute hezkuntza proiektu batekin, bai banaka, bai taldeka. Era berean, zerbitzuaren bidez sortu da harreman sare zabal bat nerabeen eremuan esku hartzen duten agenteen artean (gurasoak, hezkuntza zentroak, orientatzaileak, aisia eta aisialdi zerbitzuak, osasun zerbitzuak, gizarte langileak, familia hezitzaileak eta abar), eta harreman eta lan bateratu hori ezinbestekoa da esku hartzeko ahalik eta eraginkorren gizarte eta hezkuntzako zerbitzu honetan.

Hortaz, abiatuta zerbitzuaren oraingo garapen mailatik eta egindako lanaren balorazio positibo batetik, bai Gazteria sailetik bai udaleko gizarte zerbitzuetatik, uste dute eta baloratu dute zerbitzu hau handitu egin behar dela. Ildo horretan, antzemandako beharrei erantzuteko, proposamen bat egin da oraingo lantaldea handitzeko hezitzaile berri batekin, kontratazioko administrazio prozeduraren bidez. Proposamen hori gehitu zaie 2017ko aurrekontuei eta, besteak beste, ahalbideratuko du:

- ✓ Iristea adingabeengana/nerabeengana, une honetan zerbitzua jaso ez dutenengana
 - ✓ Handitzea adinen tartea, zerbitzua jasoten dutenena, eta pasatzea 11-17tik, une honetan lan egiten dutenekin, 18-25 urteko gazteengana.
 - ✓ Jarraipena/behaketa egitea kalean, orain arte ezin egin izan dena, zerbitzuaren baliabideen mugengatik.
- **Kontu sail berria Hautzaroaren Kontseilua abian jartzeko**, 16 mila euro aholkularitzarako eta 4 mila euro **kontseiluaren jardueretarako**, ikusteko udalak zer bultzada eman gura dion haurrek parte hartzeari, entzuteko haien ahotsa, iritziak, ikuspegiak, eta haien ekarpenak jasotzeko, haiek ukitzen dituen gaien inguruan. Horretarako, udalak asmoa du abian jartzeko hurrengo eskola ikasturtean Hautzaroaren Kontseilua, alkatearen aholu organo izaerarekin. Udalak, bestalde, konpromisoa hartzen du kontu hartzeko jaso diren ekarpenak.

Garrantzitsua da sortzea herrian espazio batzuk haurrek partu hartu dezaten, haurrek izan dezaten aukera hazi eta aurrera egiteko, horixe gura du-eta Gaztematika-Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustatze Sistemak.

- **Uarkape pilotalekua – garbitzea eta zaintzea** – 50 mila euro. Pilotalekua erabili dadin bultzatzeko, kontuan hartuta emakida indarrrik gabe geratu dela (eta bete gabe geroago egindako lehiaketa batean) taberna ustiatzeko, mahai gainean jarri da espazio hori kirolerako erabiltzeko aukera. Hala, planteatu da mugatzea sarrera abonudunak bakarri erabili dezaten Uarkape, haiek erabiltzeko, pilotalekuaz eta boulderraz gain, eta sortzea espazio bat gimnasio moduan erabiltzeko, non lehenago taberna zegoen, eta jarraitzea kirol ekintzak eskaintzen KZ gunea zen lekuan.

Gobernu taldea baloratu du era positiboan erabilera proposamen hori, eta praktikan jarri gura du; aurrekontu kontu saila bat sortu du kanpoko enpresa baten esku jartzeko instalazioaren garbiketa eta zaintza. Zaintza lanen artean daude, eraikinaren zaintza/atezaintzaz gain, gimnasio horren erabilera kontroleko lanak, baita ere,



aholkularitza teknikoa erabilera horri buruz eta, gainera, behar izanez gero, kirol zerbitzuak ematea. Edozelan ere, diru sarreren kudeaketak jarraituko luke kirol sailaren eskuetan.

- **Jarduerak jarduera ekonomiko berriak ezartzeko** – 20 mila euro. Enplegu sailak aztertu du hainbat lan lerro jarduera ekonomiko berriak ezarri eta sustatzeko, eta enplegua sortzeko. Enpresak ezarri daitezzen Arrasaten, kontua izango litzateke laguntzean jardun batzuetan, ekintzailatza bultzatu eta enpresentzat kokaleku erakargarri batzuk sustatzeko. Ekimen horiek aztertzen hasi gara 2016an, eta pentsatu da lehen urratsa moduan enpresen ezarpen berriak kaptatzeko, beharrezkoa dela jakitea zer baliabide dagoen eskuragarri eskaintzeko. Azterketa hori egiten ari da Ekai Center Fundazioa ikerketa zentroarekin elkarlanean. Lan horrek markatuko ditu egintza eta kolaborazio batzuk, egitekoak eta gauzatzekoak 2017an, eta horiek finantzatzeko, planteatzen da 2017ko aurrekontuaren kontu saila. Ekintza horiek izango dira, besteak beste, abian jartzea azterketaren emaitzen komunikazio plan bat, dibulgaziozko materiala sortzea, sustatze ekintzak antolatzea eta antzeko beste batzuk.
- **Zinemometroak alokatzea** – 72.6 mila euro. 2016ko ekitaldian aurrekontuetan jasotako jardueren osagarri moduan, 24,2 mila euro, aurreikusita dago osatzea instalazioak, herriko hainbat bidetan dagoen trafikoaren abiadura kontrolatzeko, uste baita abian jartzeak nabarmen hobetuko duela trafikoaren segurtasuna Arrasaten.
- **Ur kontsortzioa** – edateko ura hornitzea Urkulutik, milioi bat euroren diru kopuru batekin; jasotzen du, batetik, kontsumoak gehitzea (joera hori izan du 2016an, agian jarduera ekonomikoa errekuperatzen ari delako?), bestetik, gehitzea % 1 inguru hornitutako m³-ren prezioa, zeina pasatzen den 0,708 €-tik 2016an 0,7154 €-ra 2017an.
- **Berrindartzea kontu sailak, Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Sustapen ekonomiko batzordean jarduerak finantzatzeko**, 86 mila euro (▲% 6), eta planteatzen da errekuperatzea 2017rako berriro erdi aroko azokaren antolaketa.

B- Gastua gutxitzea

Atal honen barruan adierazi daitezke 2016ari buruz izandako gutxitze nagusiak.

- **Kentzea hainbat kontu saila, jardun espezifikoak** jasotzen zutenak, **2016an egitekoak**, hala nola programa bat pertsona nagusien pisuak babesteko (-51 mila euro), Zerrajerako erloju eraikineko parte-harte prozesua edo B. Barandiaranen erakusketa (-10 mila euro kontu sail bakoitza), azterketa diagnostiko soziala (-20 mila euro), genero indarkeriako plana (-20 mila euro).
- **Etxeko laguntza zerbitzu azpikontratatua** (-25.000 €), aurrekontu aurreikuspena egokitzeko azken urteotan zerbitzuan izandako gastuari edo eskariari, hori guztia kontuan izanda gobernu taldearen konpromisoa dagoela handitzeko, baldin eta eskariek edo beharriazek hala behartzen badute.



- Gutxitze horiek izan dira erabaki zehatz batengatik (edo irizpidea aldatu delako aurreko ekitaldien aldean), hala nola **garraio publikoaren** kontu saila (-22,5 mila euro), taxibus zerbitzua kentzeagatik, 2016tik aurrera emana bus garraioko zerbitzu publiko erregularraren bidez, **lurrazpiko edukiontziak konpontzea** (-40 mila euro), uste baita bilketa sistematik aurrera, Arrasaterako erabakia, apurka-apurka kendu behar direla lurrazpiko edukiontziak, bai mantentze kostu handia dutelako, bai gaikako bilketa kontrola hobea dagoelako, **korporazioaren argitalpenak** (-20 mila euro), **ingurumeneko ekintzak** (-20 mila euro) eta **kalitate jarduera** (-30 mila euro).

Azkenik, adierazi behar da, lan premisa moduan, kapitulu honen aurrekontua egiteko, irizpide bat erabili dela ez gehitzeko borondatezko gastua eta zerbitzuen oraingo eskaintza mantentzea; horrek dakar aldaketa horiek, erregela horri buruz, erantzuten diotela izaera berezi bati eta onarritzen direla lehentasunen balorazio batean.

HIRUGARREN KAPITULUA - MAILEGUEN INTERESAK - 20.129,52 euro

Gutxitu egin da % 25,8, 2016ko aurrekontuaren aldean.

Kapitulu hau behin eta berriro murriztearen arrazoia, udal gastua banatzearena legealdian, bikoitza da:


- Batetik, 2011-2015 aldian interes tipoa **egonkortu izana, historikoki baxuak diren neurrietan**, izan ere, hiruhileko euriborra izan zen % 1,4koa 2011ko bukaera aldera, eta orain **interes tipo negotiboa, % -0,330koa**, 2016ko azaroaren 15ean. Izan ere, 2016 urte osoan, interes tipoen erreferentzia hori negatiboa izan da, %-0,220 eta %-0,430 artean, eta horrek adierazten du erreferentzia horren bizi aldi osoko maila baxuenean gaudela (1991tik 1999 arte erabilitako erreferentzia zen MIBOR, eta 2000tik aurrera EURIBOR erreferentzia).

- Finantza zorraren zenbatekoa **murriztu** izana, maileguen **urteko amortizazioen** ondorioz, zorpetze berririk gabe, ez 2016an ezta ziurrenik 2017an (aurrekontuan badoa ere gastu eta sarrerak koadratzeko), zorraren zenbateko batekin 2016-12-31n, **1.642.021,37** eurokoa (sartzen dira Eusko Jaurlaritzaren 2 aurrerakin itzulgarri interesik gabe, zenbatekoa 34.239,59 euro), 1990-2016 aldiko minimo historikoa.

2017ko aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, ikusita oraingo erreferentziak, erabili dugu erreferentzia zuhur samar bat, zehazki % 0,15eko interes tipo bat, eta gero horri gehitu behar zaio diferentziala, aplikatu dakiokiena kontratu bakoitzari. Indarrean dagoen mailegu ez amortizatu bakarria sinatuta dago tipo aldakorraz, hiruhileko euriborrarekin gehituta diferentzial bat, 1,20koa (ez da baztergarria berriro finantzatzea, zeren merkatuan orain aukera merkeagoak daude). Kontuan hartzen badugu azken erreferentzia ezaguna, 2016/11/15ean, % -0,330 dela, aurrekontu aurreikuspenak % 0,48 inguruko koltxoia du interes tipoa, diruaren oraingo prezioaren aldean / euribor interesa.



Honekin batera doan grafikoan ikusi dezakegu zer eboluzio izan duen hiruhileko EURIBOR erreferentziak (2000. urtera arte erreferentzia da MIBOR) 1991-2016ko azaroaren aldian, zeinetan egiaztatuko dugun maila baxuetan egonkortu dela 2009tik aurrera, are gehiago gutxitua azken 4 urteotan.



(*) 1991-1999 aldiko datuak dagozkio hiruhileko MIBOR erreferentziari.

Bestalde, 2016ko urtean **egiaztatu da nabarmen hobetu direla** 2014an bankuen eta kutxen finantza baldintzak, mailegu berriak emateari begira. Interes aldakorreko modalitateko maileguetarako, 2011-2013 aldian aplikatu dituzte "euribor + 4 puntu" diferentzialak eta orain "euribor + 0,20 puntu". Tipo finkoaren modalitatean eskaintzen zuten % 5eko interesa eta orain eskaintzen ari dira % 1,5 inguruko tipoak. Ematen du, hortaz, eskaintako baldintza ekonomikoak mugitu ahal izango direla parametroa onargarriagoetan eta arrazoizkoagoetan.

Beste elementuak, zailtzen duena mailegua eskuratzea udaleko, hau da, **lege esparrua zorpetzeari buruz**, ematen du malgutu egin daitekeela, behintzat, Gipuzkoan, izan ere, Biltzar Orokorretan eztabaida aldian dago aukera izatea salbuespen jakin batzuk sartzeko aurrekontu egonkortasunean, udalek zor portzentaje jakin bat ez badute gaintitzen (% 70 diru sarrera arruntei buruz) eta baldintza batzuk ez badituzte betetzen, izan dezaten aukera handitzeko 3 urtera (une honetan 1ekoa da bakarrik) aurrekontu egonkortasuna lortzea, finantzatu gura izanez gero urte anitzeko inbertsio proiektu estrategikoak. Aukera hori, onartzen bada azkenean, sartu daiteke ondo Arrasateko Udalaren beharretan, ikusita hurrengo urteetan zer inbertsio egin gura ditugun.



LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 4.715.842,44 euro.

Murriztu egin da % 4,1 2016ko aurrekontu kopuruaren aldean.

Kapitulu honen alderdi aipagarriak dira:

- 2017rako mankomunitateko aurrekontuaren zirriborroak aurreikusitako kopuruen arabera, %8,3ko murrizketa ematen da amankomunitateko zerbitzuen kuotetan (Suradesa barne) guztira 2.232.919,21 €ko kopurua izanik. Aipatu murrizketa, gehien bat, bailarako zenbait herritan zabor bilketan sisteman sartutako zenbait aldaketek erandako kostu txikiagoetatik dator. RSU zerbitzua (hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendua) da mankomunitateko kuota guztien %82a.

- **Nabarmen jeistea defizita, Iturbide Egoitza erakunde autonomoan aurreikusia** (- 30,5 mila euro, ▲% 62), batez ere, udal egoitza guztiak “KABIA” izeneko erakundearen sartu arteko epe iraganokorrerako Diputazioak finantzazio osagarria emateko hartutako konpromisoengatik.

- Diru laguntzen programa berri pare bat sartzeari, “**laguntza programa gazteei laguntzeko etxeak** alokatzen” izenekoa, , zeinaren helburua den 18-30 urte duten gazteei samurtzea emanazipazio prozesuan, eta “**Langabetuentzako formazio gastuetarako laguntzak**”, **bakoitza 30 mila euroko** kopuru batekin. Aipatu programak, baldintza jakin batzuk bete beharko dituzte (diru sarreren maila, erroldatzea eta abar), derrigorrez laguntzak arautzeko oinarrietara eraman beharko direnak, aurreikusten dute, alde batetik, etxebizitzaren alokairuak finantzatzeko merkatu librean herriko gazteei emango zaizkien diru laguntzak, eta, bestetik, langabetuen taldeari bere formazio beharrak era proaktiboan kudeatzeko laguntzak.

- Programa: **Harreman - Mundukide – Zuzeneko laguntzak – hitzarmena – 15.000 euro.** 2017ra begira, gobernu taldetik egokia ikusi da orain arteko eredu mantenduz, lehiaketa biez deialdi orokorrean eta Euskal Fondoak kudeatutako programak, Harreman eta Mundukide erakundearekin lankidetzara hitzarmena gauzatzea. Erakunde horren eskarmentuak ematen duen bermea baloratu da zuzeneko laguntza ematearen egokitasuna proposatzerakoan. Hitzarmen horren arabera udalak garapenerako lankidetzara bideratzen duen aurrekontua haunditzeko konpromezua hartzen du, helburua izanik udal korporazio honen agintaldiaren amaieran aurrekontuaren udal baliabide arrunten %0,7ra iristea garapenerako laguntzetan.

- **Diru kopuruak mantentzen dira Arrasate Musikaleko diru laguntzetarako, 325 mila euro, eta gizarte larrialdietako laguntza programetarako, 300 mila euro.** Azken kontu sail hori, aurreko ekitaldietan bezalaxe, udaleko gobernu taldearen borondate politikoa baita funts gehigarriak ematea onartutako esleipena ez bada nahikoa planteatutako beharrei erantzuteko. Halaber, **jarraitzen dugu enplegua sortzeko laguntzen programekin** (laguntza programak



langabeak kontratatzeko, laguntza programa bat enpresentzat lanpostu berriak sortzeko, eta azkenik, definitu ostean Lanbiderekin bat eginda, laguntzak tituludun berriak laneko merkatuan sartzeko ekintzak finantzatzeko), diru kopuru globala izanik 237,25 mila euro, banatu daitekeena modu berean programa guztien artean, jasotako beharren eta eskarien arabera.

- Memoriaren hasieran adierazi bezala, orokortasunez, esandako salbuespenak salbuespen, **jarraitzen dugu diru laguntza programekin**, bai eta **2016ko aurrekontuan izaera nominatiboko diru laguntzekin**, iazkoaren antzeko diru kopuruekin. Edozelan ere, kopuru handia delako, komeni da gogoratzea **aurrekontuko baliabideek** udal batzordeen eta udal sailen diru laguntzen programak finantzatzeko (sartu barik gizarte larrialdietako laguntzak, nagusiki EJK finantzatuak), **egiten dutela 1,76 milioi euro**.

- Halaber, nahiz eta aldaketarik ez izan **udal talde politikoei ordaindu beharreko kopuruek** eta **kontzeptuek** (taldeko, zinegotzi kopuruko eta bileretara joateagatik), 2015-07-13ko osoko bilkuran onartutakoei dagokienez, kontu sailaren **kopurua handitu da 20.000 euroan**, egokitzeke 2016an benetan egindako bileretako datuei.

BOSGARREN KAPITULUA – KREDITU GLOBALA ETA USTEKABEAK - 50.000 EURO

2015era arte, aurrekontuetan jasoa bigarren kapituluan, 86/2015 Foru Dekretuaren ondorioz, Gipuzkoako toki erakundeen kontabilitatearen arau esparrua, sortu da kapitulu berri bat, “Kreditu Globala eta beste ustekabe batzuk” izenekoa, zeinaren bidez aukera dago ekitaldian egon daitezkeen beharrak finantzatzeko, horiek ez baude jasota hasieran onartutako aurrekontuan.

Aurten kontu sailaren kopurua handitua da 30.000 euroan 2016koaren aldean.

SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK - 4.041.320,00 euro

Dakar % 18,9 gutxitzea (940,3 mila euro gutxiago), 2016ko aurrekontuan kapitulu honi esleitutako kopuruari buruz.

Errepikatuko dugu memoriaren hasieran esandakoa, 2017an, 2016an bezalaxe, pisu inportantea izango du planifikatzeak eta definitzeak garrantzizko proiektuak, legealdian exekutatu beharrekoak, eta adjudikatu dira 2016an horietako batzuk idaztea (Kulturola, Apendices), beste batzuk seguruenik, adjudikatuko dira 2017an (Makatzenan igogailua, urbanizazio Zalduspen, azoka eta abar). Proiektuak aztertu eta idazteko aldi hori behar bezala gauzatzeak ekarriko ditu, zalantzarik gabe, emaitza hobeak bukaeran, hau da, kalitate handiagoa eta egokitzea beharrei, sortutako ekipamendu eta azpiegitu publikoetan.

Bestalde, adierazita dago 2016ko aurrekontuaren likidaziotik espero dugula soberakin aipagarri bat (2-2,5 milioi euro), zeina erabili daiteken gastu berriak finantzatzeko. Horri buruz eta behin betikoz zehaztu arte zehatz mehatz zenbat izango den soberakin edo erabilgarri hori (jakingo dugu gutxi gorabehera 2017ko otsail bukaeran edo martxo hasieran), adierazten da,



eragotzi gabe eztabida batzordeetan eta, azkenik, osoko bilkuran, gobernu taldearen borondatea dela kopuru hori erabiltzea, nagusiki, inbertsio berriak finantzatzeko.

Aurreko urteetan bezala, proposatu da zabalik uztea aurrekontuan, kreditu gehigarri kalifikazioarekin, aurrekontuak exekutatzeko arauetan jaso, milioi bat euroan handitzea sinatu beharreko kredituen edo maileguen zenbatekoa (azkenean beharrezkoak izanez gero), horrela erantzun ahal izateko azkar samar Udalari egokitu dakizkioken konpromiso batzuei, inbertsio proiektuetan, adibidez, haien diru laguntza ehunekoak kostu osoaren berdina edo handiagoa izateko; horrela, aurrez aurrekontu kopururik ez badago ere, ez da izango oztopo bat intereseko proiektuak aurrera eramateko, batez ere kanpo finantzaketako maila handia badute.

Azkenik, deskribatuko ditugu, xehetasun handiago batez, 2017an hasi behar ditugun jarduera nagusietako batzuk, zehazki hauek:

-1.0200.622.333.00.01 kontu saila – Aprendices eraikina – 625.000 euro

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016-07-28an hartutako akordioaz adjudikatu zitzaion “LKS Ingeniería, SCoop” enpresari “Aprendices eskola” izeneko eraikina osorik birgaitzeko proiektua idaztea, 6 hil eta erdiko epean bukatzeko, eta exekuzio proiektu hori edukiko dugu 2017ko hasieran. Helburua izango litzateke amaitzea adjudikazio prozedura obrak exekutatu daitezen 2017ko bukaerarako. Eraikina birgaitzeko obrek aukera emango dute ekipamendu bat sortzeko, batez ere musikari eskainia, non egongo diren, besteak beste, Arrasate Musikal eta Goikobalu abesbatza.

Birgaitze horretan, bai instalazioena, bai jarriko den eraikuntza ingurutzailerena, kontuan hartuko dira preskripzioak eta eskakizunak, Eraikuntzako Kode Teknikoan ezarriak, eta horiek ekarriko dute aurreztea energia efizientziako eremuetan, eta era berean bermatuko dute errespetuzko interbentzioa, irizpide batzuekin ingurumena defendatu eta babesteko.

2017ko kopuruak, 2016ko aurrekontuan zegoenari batuta, 1.030.000 euro, esan nahi du dagoela guztira erreserba bat 1.655.000 eurokoa proiektuaren exekuzioa finantzatzeko (idaztearen eta zuzentzearen ordainsariak sartuta).

-1.0200.622.334.00.00 kontu saila – Kulturola proiektua – 625.000 euro

Aurki bukatuko da espedientea “Rehabilitación Kulturola” izeneko proiektuaren idazlana adjudikatzeko, eta espero dugu horren idazlana bukatzea 2017an erdialdera. Proiektua gauzatuko da Zerrajerako erloju eraikin zaharrean, eta horretan jarriko dira eta egoitza izan dezakete Arrasateko hainbat erakundek, lanean dihardutenak kultura eremuan.

Eraikina birgaitzea proposatzeko unean, kontuan hartu beharko da haren ondare eta kultura ondasunaren izaera, monumentu kalifikazioarekin, Euskal Kultura-Ondarearen ondasun nagusien zerrendan sartua.

2017ko helburu nagusietako bat izango da 2017an bukatzea proiektuaren idazlana, ahalik eta lasterren exekutatzen hasteko.

Aurreko kontu sailean bezala (Aprendices), 2017ko kopuruak, 2016ko aurrekontuan zegoenari batuta, 1.030.000 euro, esan nahi du dagoela guztira erreserba bat 1.655.000 eurokoa proiektuaren exekuzioa finantzatzeko (idaztearen eta zuzentzearen ordainsariak sartuta).



-1.0800.601.153.34.00 kontu saila – Hobetzea atzealdeko urbanizazioa Uribarri etorbidean- 340.000 euro

Lanok sartzen dira Garaia-Takolo urbanizazioaren hobetze proiektuan. Zehazki, Uribarri etorbidea 1-3-5-7ko atzealdeari egiten diotenak. Proiektua idatzita dago, eta haren helburua da 2017an egitea inguru hori konpontzea, une honetan egoera txarrean baitago.

-1.0800.601.153.38.00 kontu saila – Makatzenan pilotaleku inguruaren urbanizazioa - 320.000 euro

Lanak egitea da exekutatzeko "Makatzena pilotalekuaren inguruan eta haur parkean urbanizazioa berritzea" proiektua. Proiektu horren idazlana adjudikatu da 2016an, eta auzoko bizilagunek aukera izango dute parte hartzeko iritzia emanda aukeren artean aukeratu dezaten. Prozesu horren emaitzak aukera emango du 2017an aipatutako obrak exekutatzeko.

2017ko diru kopurua gehituta 2016koari, 53.000 euro (proiektuaren ordainsariak barne), horrela finantzatu beharreko obrak, eta planteatu ahal izango da, ikusi egin behar zer ezaugarri dituen azkenik aukeratu den aukerak, konpromisoak hartzea hurrengo ekitaldien kontura, behar izanez gero.

-1.0800.601.153.38.01 kontu saila – Urbanizazioa hobetzea Garibai etorbidean - 230.000 euro

Helburua da berritzea/hobetzea 2017an urbanizazioa herrian gehien erabiltzen den eta jende gehien hartzen duen leku bat, Garibai etorbidea. Obraren interbentzio eremua izango litzateke Biteri kalea 2ko dorre ingurua eta Iturbide egoitza ondoko iturriaren ingurua. Lehenengo, proiektua idatzi beharko da, gero exekutatzeko 2017an. Lortu gura diren helburuen artean dago espaloia berritzea, eta aukera hori aprobetxatuko da argiteriaren eta ur sareen eta saneamenduaren kanalizazioak hobetzeko.

-1.0800.601.165.00.00 – Argiteria publikoko inbertsioak – 30.000 euro

Kontu saila honek murrizketa inportantea du aurreko ekitaldien aldean (-140 mila euro 2016koaren aldean).

Nabaria da berri behar izatea herriko argiteria publikoko instalazioak eta luminariak. Luminariei dagokienez, 4.000tik, horietatik gutxi gorabehera jarrita daudenak herrian, 550 teknologia berrikoak izango lirateke –LED-, energia efizientziako irizpidez. Gainerakoetan, 2017an, bultzatuko da berritu daitezkeen, programa baten bidez, zeina bultzatzen duen IDAE Institutuak, energia dibertsifikatu eta aurrezteko, Mankomunitatearen bidez kudeatua, eskualdean udalerrien beharren erakunde koordinatzaile baita, diru laguntza publikoa lortzen samurtzeko, izan ere, banaka kudeatu behar izanez gero, udalerrri batzuek ezin izango litzateke laguntzarik lortu. Programa horretan jasotzen da inbertsio bateratu bat, gutxi gorabehera 1.400.000 eurokoa, eta horietatik 450.000 euro inguru egokituko litzaiok Arrasateri, non jarriko liratekeen 1.000 luminaria inguru, LED teknologiakoak. Beste berritze iturri inportante bat, 1.000 luminaria inguru, etorriko da irizpide eta baldintza teknologikak gehituko direlako hainbat urbanizazio proiektutan, egingo direnak legegaldian (Araba etorbidea, Erguin, San Josepe, Garagartza, Santa Marina eta abar). Argiteriaren telegestio sistemaren instalazioa bukatuta dago. Inbertsio ahalegin



hori guztia energia efizientzian hobekuntzak lortzeko bideratuta dago eta gaur arte zenbait elkarteen laguntzak izan ditu (Foru Aldundiarena – EVErena).

Lehenetsia du, 2017an, batetik, jarraipen eta kudeaketa egokia egiteak Mankomunitatearen bidez egin beharreko interbentzio lanetan (aurreratzen da hainbat urteren inbertsioa eta finantzatzen da kreditu batez interesik gabea, itzuli beharrekoa 10 urtean), eta, bestetik, programa hori dela-eta instalazioak egokitu eta berritzeko dauden beharrei erantzuteak.

-1.0500.601.153.22.00 kontu saila - Urbanizazioa Zalduspen- 100.000 euro

Aspalditik Arrasateko Udala dabil pauso txiki batzuk ematen, baina etenik gabe, Zalduspeko eremuan hirigintza kudeaketan eta garapenean areagotzeko. Orain, hitzarmenaren ondorioz, SPRIrekin 2016an sinatua, zeinetan trukatu den udalaren jabetzako partzela bat Aprendices eraikinarekin, egun zehatz bat jarri da urbanizazio hori bukatzeko. Hortaz, ezinbestekoa da arintzea zer urrats eman behar diren, izan ere, oraindik bide luzea dugu egiteko.

Horregatik, 2017rako, jasotzen da, batetik, 2016ko dotazioa osatzea Zalduspe katea 2ko proiektua burutzeko eta, bestetik, saiatzeko aurreratzen urbanizazio proiektuaren idazlanak Zalduspe eremuan, zeina gidaria izango den geroago kudeatu behar diren etapak garatzeko, lankidetzaren erregimenean (jabeen urbanizazio kuotez finantzatua).

-1.0920.622.340.00.00 kontu saila – Kirol sailaren inbertsioak- 200.000 euro

Dotazioa da globala, eta haren banaketa eta exekuzioa eztabaidatu eta lehenetsi beharko dira geroago; kontu sailean jasotzen dira, besteak beste, jardun hauek:

- Uarkape pilotalekuko taberna egokitzea, gimnasioa izateko edo gimnasio moduan erabiltzeko, 75 mila euro.
- Makinak eta instalazioak berritzea Musakolan, 10 mila euro.
- Kirol azpiegiturak eta kirol ekipamenduak (Musakolan, Iturripen eta Uarkapen) egokitzea auto-babeseko planetan ezarritako errekerimenduei, 100 mila euro.
- Tornoak jartzea sarbideak kontrolatzeko Musakolan, 15 mila euro

-1.0406.622.337.10.01 kontu saila – Teilatua berritzea Tokiargi eraikinean – 100.000 euros

Nahiz eta jardun eta konponketa batzuk izan dituen azken urteotan, beharrezkotzat jo da jardun osoago bat egitea eraikinaren teilatuan, hor baitaude jubilatuen etxea, haur liburutegia eta auzoko alkatezia, ekipamenduak eta zerbitzuak.

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK – 1.049.064,62 euro

% 41,5eko igoera du (+307,8 mila euro), 2016ko aurrekontuaren aldean.

2016ko aurrekontuaren aldean, mantendu dira, aldaketa txikiren bat izan ezik, iaz zeuden kontu sailak eta kontzeptuak (diru laguntza igogailuak jartzeko /irisgarritasuna hobetzea,



ekarpena Zubillaga Hiltegia SLko inbertsioak egiteko, horiez gain ekarpenak Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren inbertsioak finantzatzeko).

Kapitulu honetako kontu sail berri moduan, aipatu behar da sartu dela 200 mila euro parte hartzeko Lanako biribilguneke obren finantzaketan, Foru Aldundiak egingo duena 2017an, baita ere, kontu sail bat Musakola auzoan San Isidro elizako teilatua egiturazko erreforma bat finantzatzeko, non auzoko jubilatuen etxea dagoen, 28,5 mila euroko zenbatekoaz, baina lortu eta sinatu beharra dago hitzarmen bat gotzaindegiarekin, eraikinaren jabea baita.

Kapitulu honen barruan, eragin ekonomiko berezia dutelako, kontu-sail hauek azpimarratu behar ditugu:

- Kontu saila, Mankomunitatearen inbertsioak finantzatzeko dena, 280 mila euroko diru izendapen batekin, 2017 ekitaldirako bere aurrekontu zirriborroak jaso dituen zenbakien arabera. Udal zerbitzu mankomunatueterako kuota arruntekin ez bezala (horietan kostu murrizketak eman dira), hondakinen bilketa eta kudeaketa sisteman ezarritako aldaketek eskatuko dute urteko inbertsio handiagoak egitea.
- Udalaren ekarpena, inbertsioak finantzatzeko dena, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, SAK egin beharrekoak, 484.700 euroko zenbatekoa, % 3,1 gutxitzea dena 2016ko urtearen aldean.

ZORTZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA - 180.000 euro

Gutxitu da % 32, 2016ko aurrekontuaren aldean.

2016an izandako antzeko kontzeptu eta kontu sailekin, gutxitze hori dator udal ekarpen txikiagoa egin diolako Garaia S.Coop.ren kapitalari, entitate horrek zerga gutxiago ordaintzearen ondorioz (OHZn katastro balioa aztertzetik), zeinak sortzen duen zenbateko konpentsazio txikiagoa eta ekarpen erritmoa moteltzea.

Kapitulu honek udal gastu osaren banaketari buruz garrantzi ekonomiko urria du, eta normalean bakarrik jaso beharko litzuzke langileen aurrerakinak finantzatzeko aurrekontu kredituak (era berean, horiek beste kontu-saila bat dute diru sarreretan).

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 311.733,15 euro

Gutxitzen da % 56,4, 2016ko aurrekontuko kopuruei buruz.

Kapitulu honetako finantza kargak kalkulatzeko, estimatu da 2017ko aurrekontuetan aurreikusitako maileguak ez duela behar izango ordaintzarik hurrengo ekitaldian, ez interesena ez amortizazioarena, uste baita ez duela erabiliko ezelako kopururik. Estimazio hori egiteko arrazoia da 2017an sinatu beharreko mailegu berrien aurrekontu aurreikuspenaren izaera “teorikoa”, hondar baliabide moduan erabilia ekitaldiko gastuen eta diru sarreraren koadratze formala egiteko, benetan espero dugunean lortzea nahiko baliabide 2016ko itxieratik, zorpetze hori beharrezko ez



egiteko Kasu guztietan, ez dugu espero diruzaintza tentsiorik egotea 2017an, eta finantza desfaserik ere ez, beharrezko egiten dutenak mailegu berriak kontratatzea eta erabiltzea.

2016ko aurrekontuaren exekuzioak, zorpetzearen ikuspegitik, erakutsi digu ez dugula behar izan mailegu berririk (nahiz eta “teorian” aurreikusita egon kreditu berri bat, 876,8 milioi eurokoa) eta, bestalde, zorraren zenbatekoa, banketxeekin kontratatutako kredituengatik, gutxitu egin da 720 mila euroan, gutxi gorabehera, urteko amortizazioen eraginez.

Beraz, aurreikuspen horiek ontzat emanda 2017ko gastuen eta diru sarrerei buruz (hau da, diru sarreretan, ez kontratatzea mailegu berririk eta, gastuetan, ekitaldiko amortizazioak betez gero), zorpetzearen azken kopurua izango da 1,33 milioikoa 2017/12/31n.

Memoriaren hasieran adierazi dugu oraingo lege esparrua, aurrekontu egonkortasunari dagokionez, penalizatzen dituela, nola edo hala, zorpetze baxua duten udalak, ezen sartzen baita zorpetze txikiagoko dinamika batean → amortizazio baxuak → legezko gaitasun txikiagoa zorpetzeko. Ikuspegi horretatik eta alhora utzi gabe oraingo araudiak baimentzen dituen salbuespenak (espero dezagun hobetzea foru aldundiak iragarritako arau aldaketak), ez du ematen oso logikoa denik, balio absolutuetan eta erlatiboetan, azken 40 urteotan, udal zorpetze tasa txikiak edukitzea legezko mugak zorpetze berriak eskuratzeko. Argi dago egokia dela egitea joko arauen aldaketa bat, egokituagoak erakunde bakoitzaren finantza egoera errealei. Hori guztia, begien bistatik kendu gabe udalaren aurrezte urriko egoera batean (adibidez, diru sarrera arruntak ia estali ere ez dituenegatik egiten gastu korronteak), nahiz eta abiatzen egoera den zorpetze baxua izan, mailegu berriak kontratatzeko gertatu daiteke finantza zailtasunak egotea, eta, baita ere, bideraezina izatea epe ertainera edo epe luzera. Honekin bakarrik esan nahi dugu zorpetzea ez da kontuan hartu beharreko aldagai bakarra, kontuan hartu behar dira ere udal gastuen eta diru sarreren egiturak eta izaerak, eta hartuta dauden konpromisoak, oraingoak eta gerokoak, eskaintako zerbitzuetan eta sortutako azpiegituretan.

Aurreko aurrekontuetan bezala, aztertu behar dugu zorraren eboluzioa, maileguz mailegu, 1991-2017 aldian, eta erabiliko ditugu 2017ko aurrekontuaren erreferentziak edo estimazioak (lehenago aipatu ditugun lan hipotesien arabera, hau da, mailegurik ez 2017an). Halaber, zor hori lotuko dugu diru sarrera arruntekin, lortu direnak aurrekontuetako likidazioetatik (2016koak izango lirateke, adierazi bezala, itxiera aurrerapenaren datuetan oinarrituta, eta 2017koak izango lirateke aurrekontu aurreikuspenen arabera), diru sarrera korronteen erreferentzia hori ulerturik udalaren gaitasun ekonomiko arruntaren neurri gisa.



MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA – 1991/2017 ALDIAN (MILA EUROTAN)

URTEA	HASIERAKO ZOR BIZIA	MAILEGU BERRIAK	AMORTIZ. EKITALDIA	BUKAERAKO ZORRA	▲AURREKO URT.Z
1991	4.398,2	1.388,9	218,2	5.569	26,6%
1992	5.569	2.013,4	295,7	7.286,7	30,8%
1993	7.286,7	4.771,4	2.372,2	9.685,3	32,9%
1994	9.685,3	2.434	378	11.741,4	21,2%
1995	11.741,4	1.911,2	605,8	13.052,2	11,2%
1996	13.052,2	2.704,6	3.755,1	12.001,6	- 8,0%
1997	12.001,6	---	976	11.025,6	- 8,1%
1998	11.025,6	---	1.033,1	9.992,4	- 9,4%
1999	9.992,4	1.434	1.140,1	8.852,3	- 11,4%
2000	8.852,3	-	1.123,9	7.728,4	- 12,7%
2001	7.728,4	1.803	1.156,3	8.375,1	+8,4%
2002	8.375,1	1.800	1.240,1	8.935,3	+ 6,7%
2003	8.935,3	---	1.429,2	7.506,1	- 16%
2004	7.506,1	---	1.682,5	5.823,6	- 22,4%
2005	5.821,6	5.904,9	1.723,8	10.004,7	+ 71,8%
2006	10.004,7	1,200	1.328	9.874,7	- 1,3 %
2007	9.874,7	---	1.227,2	8.647,5	- 12,5%
2008	8.647,5	---	1.060,2	7.587,2	- 12,3 %
2009 (1)	7.587,2	3.077,5	1.081,9	9.582,8	+26,3%
2010	9.582,8	-	1.403,5	8.179,3	-14,6%
2011	8.179,3	3.111,2 (2)	2.146,0	9.144,5	11,4%
2012	9.144,5	---	2.438,2	6.706,3	-27 %
2013	6.706,3	--	2.312,6	4.393,7	-34,5%
2014	4.393,7	--	1.065	3.328,7	-24,2%
2015	3.328,7	--	966,1	2.362,6	-29,0%



2016 (3)	2.362,6	--	714,8	1.642,0	-30,5%
2017 (4)	1.642,07,	--	311,7	1.330,3	-19%

(1) – Mailegu berriztat jotzen dugu Foru Aldundiaren aurrerakina, 2009ko UFFFren saldo negatiboarengatik.

(2) – Eusko Jaurlaritzaren interesik gabeko aurrerakina barne (2010eko murrizketa eta 2011ko berria)

(3) – Estimazioen arabera, 2016ko aurrekontua ixtean eginak

(3) – 2017ko aurrekontuko datuen arabera, mailegu berririk gabe

Maileguen zorra lotzen badugu udalaren diru sarrera arrunt edo korronteekin, eta 191990-2017 aldiko eboluzioarekin, koadro hau daukagu:

DIRU SARRERA ARRUNTETAN MAILEGUEN ZORRAREN ZERRENDA – 1990-2016 ALDIAN


EKITALDIA	ZORRA 12/31n	ESKUB. LIKID ERAG. ARRUN.	%G./ SARRERA ARRUNTAK
1990	4.398,2	9.767,6	45%
1991	5.569	10.862,7	51,3 %
1992	7.286,7	12.550,9	58,1 %
1993	9.685,3	12.337	78,5 %
1994	11.741,4	13.078	89,8 %
1995	13.052,2	13.477,7	96,8 %
1996	12.001,6	14.944,8	80,3 %
1997	11.025,6	15.971,9	69 %
1998	9.992,4	16.194,9	61,7 %
1999	8.852,3	17.340,4	51 %
2000	7.728,4	19.833,4	39 %
2001	8.375,1	18.784,2	44,6%
2002	8.935,3	19.167,7	45,7%
2003	7.506,1	21.070,8	35,6%
2004	5.821,6	24.461,2	23,8%
2005	10.004,7	24.549,4(*)	40,8%
2006	9.874,7	27.650,8	35,7%
2007	8.647,5	28.870,84	30%
2008	7.587,2	28.469,48	26,6%
2009 (UFFF 2009 zor moduan)	9.582,8	26.072,0	36,7%
2010	8.179,3	27.608,6	29,6%
2011	9.144,5	25.631,8	35,7%
2012	6.706,3	26.665,2	25,2%
2013	4.393,7	27.335,6	16,1%
2014	3.328,7	29.347,6	11,3%
2015	2.362,6	32.485,2	7,3%
2016 (itxiera estim. arabera)	1.642,0	30.500	5,4%
2017 (2017ko aurrek.ri buruz)	1.330,3	30.665,6	4,3%

(*) 2005az geroztik, aprobetxamendu lagapen monetarizatuak eta hirigintza kargak ez dira zenbatzen diru-sarrera arrunt moduan




Koadro hau eta aurrekoa aztertuz gero, ikusiko dugu 1991 – 2017ko bukaerako aldiaren maileguen zorra, termino absolutuetan, % 70 gutxitu dela, diru sarrera arruntei dagokienez ekitaldi bakoitzaren bukaeran, ikusiko dugu 2017 urtearen bukaeran gaudela aztertutako aldiaren unerik onenean, izan ere, zor horiek ia ez dira iristen udalaren urteko diru sarrera arrunten (errepikariak) % 4,3ra. Konklusio giza, adierazi daiteke aztertu den aldiaren zorraren zenbatekoa nabarmen gutxitu dela balio absolutuetan eta gutxitze hori dela askoz handiagoa neurtzen badugu udalaren gaitasun ekonomikoari buruz.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zein eboluzio izan duten maileguen zorraren aldagaiek 1990/2017 aldiaren eta diru-sarrera arruntek 1990-2017 aldiaren (2017. urteko datuak, aurrekontuaren kopuruaren arabera, mailegu berririk gabe)





1990/2017 MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA ETA OHIKO DIRU-SARREREKIN DUEN LOTURA
MILA EUROETAN





2017 EKITALDIRAKODIRU SARREREN AURREKONTUA

Aurrekontua da 31.520.472,44 euro, eta gutxitzen da % 1,74 2016ko aurrekontuaren aldean.

Aurreko ekitaldiari buruz 2017 aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa aztertu ondoren, koadro hau daukagu:

2016-2017 AURREK. EBOLUZIOA, KAPITULUZ KAPITULU (MILA EUROTAN)

KAPITULUA	AURREK. 2016	GUZT. Z	AURREK. 2017	GUZT. Z	ALDAE RA. 2016/17	2016/17
I -ZUZENEKO ZERGAK	7.672,6	23,92%	7.658,3	24,40%	-14,30	-0,19%
II- ZEHARKAKO ZERGAK	650	2,02%	325	1,04%	-325,00	-50,00%
III TASAK ETA PREZIOAK	7.120,8	22,20%	7.158,5	22,81%	37,70	0,53%
IV TRANSFER. ARRUNT.	15.016,4	46,81%	15.385,6	49,03%	369,20	2,46%
V ONDARE SARRERAK	178,6	0,56%	138,2	0,44%	-40,40	-22,62%
VI ONDAREA SALTZEA	230,3	0,72%	220,2	0,70%	-10,10	-4,39%
VII KAPITAL TRANSF.	243,2	0,76%	146,2	0,47%	-97	-39,88%
VIII FINAN.AKT. ALDAK.	90	0,28%	90	0,29%	0	0
IX FINAN.PASIB. ALDAK.	876,8	2,73%	398,4	1,27%	-487,4	-54,56%
GUZTIRA	32.078,7	100%	31.520,4	100%	-558,30	-1,74%

Koadro honen bidez jasoko ditugu 2017 aurrekontuan izandako aldaketa nagusiak:


- Egonkortzea udal zeregekin lotutako diru sarrerren kapituluaren garrantzia (I, II eta III. Kap.), zeina, aurrekontuko diru sarrera guztiei buruz, pasatzen den % 48,1etik % 48,2 izatera, zeinak, 2017ko aurrekontuaren zenbateko globala denez 2016koa baino txikiagoa, esan nahi duen gutxitzea zenbatekoak balio absolutuetan, eta hori da, besteak beste, zerga presioa ez igotzeko erabakiaren ondorioa.
- IV. Kapitulan (transferentzia arruntak) igoera izan da bai termino kuantitatiboetan (+369,2 mila euro) bai portzentaje terminoetan (pasatu da % 46,81etik % 49 izatera), 2016ko diru sarrerren aldean. Igoera horren kausa nagusia dator diru bilketa handiagoa aurreikustea foru funtsetik 2017ko ekitaldirako (+272 mila euro 2016ko aurrek. buruz), baita ere, diru sarrera kontzeptu berri batetik, finantzatzeko udal eskumeneko




gizarte zerbitzuak ematea, aurreikusiak gizarte zerbitzuetako euskal sistemaren prestazioen eta zerbitzuen kartera dekretuan (aurrek. 150 mila euro).

- Kapital operazioen garrantziak (VI. Kap. – Ondareak saltzea eta VII. Kap. – Kapital transferentziak), jarraitzen du izaten testimoniala, zeren diru sarrera guztien % 1,07 baita bakarrik.
- IX Kap. – Zorpetzearen garrantzia pasatzen da % 2,7tik % 1,27ra. Edozelan ere, kopuru hori erlatibizatu egin behar da, izaera guztiz teorikoa baitu, izan ere, azken urteotan aurrekontu kopuruak izan dira erreferentzia hutsak aurrekontua koadratzeko. Egiaz, azken 5 ekitaldietan ez da kontratatu mailegurik, eta 2017rako, lehen esan bezala, aurrekontuetan sartuta badago ere, estimatu da ez dela behar izango ezin kopururik.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi dezakegu, batetik, 2017ko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa 2016ko aurrekontuaren aldean eta, bestetik, diru sarreraren aurrekontuaren kapituluz kapituluko portzentaje banaketa.





- **48,25** datoz udal zergetatik (diru sarreren I, II eta III kapituluak).
- **49,03** datoz beste erakunde edo administrazio batzuen **diru laguntza arruntetatik**; horietatik 42,94 datoz **Udala Finantzatzeko Foru Fondotik**.
- **0,44** lortzen dira **ondare sarreretatik**.
- **0,70** lortzea espero da ondareak saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamenduengatik diru sarreretatik.
- **0,47** lortzen dira kapital diru laguntzetatik, jaso direnak inbertsioak finantzatzeko.
- **0,29** datoz langileen aurrerakinak itzultzetik eta beste kontzeptu batzuetatik.
- **1,27** lortuko lirateke “teorian” zorpetzearen bidez, hau da, mailegu berriak, nahiz eta espero dugun mailegurik sinatu behar ez izatea.



Orain diru-sarrereren aurrekontuaren aldaera nagusiak aipatuko ditugu.

LEHEN KAPITULUA – ZUZENENKO ZERGAK – 7.658.250 euro

Gutxitu da % 0,19, 2016ko aurrekontuaren aldean.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, kontuan hartu dira 2016ko diru sarrera errealak, zerga aldaketak, onartuak 2017rako ordenantza fiskaletan kapitulu honetako zergak erregulatzeko, osoko bilkuran hartutako akordioaren arabera 2016ko uztailearen 12an (ezartzea zerga tipoak, aplikatzekoak hiri izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari, katastroa berriskusteagatik, 2017ko eraginetarako) eta 2016ko urriaren 25ean (onartzea aldaketak, gainerako ordenantzei aplikagarriak), baita ere, diru sarrereren estimazio zehur bat, ikuskatze lanen ondorioz (borrokatzea iruzurraren aurka udal eremuko zergetan, nagusiki JEZn), egingo dena hurrengo ekitaldian.

Horri dagokionez, aldaketa nagusiak, 2017rako onartuak, hauek dira:

- a) **Hiri OHZrako, katastro balioak nabarmen jaitsi direnez, aplikagarriak 2017rako, areagotua ondasun higiezinatarako industria lurzoruetan, tipo hauek ezarri dira:**
 - Hiri ondasunak industria lurzoruan, pasatzen da % 0,5307tik, indarrean 2016an, % 0,6 izatera (gehienez onartua foru arauak) 2017an.
 - Gainerako ondasun higiezinatan, pasatzen da % 0,2012tik % 0,2315era.
 - Halaber, baldintza batzuk aldatzen dira familia ugariaren hobaria izateko, familia unitatearen diru sarrerekin lotua.
- b) **Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, tipoa psatzen da 2,193 izatetik 2,2 izatera (▲% 0,32).**
- c) **Ez onartzea zerga tipoak gehitzea 2017rako ibilgailuen gaineko zergan, nahiz eta aldatzen den denbora tarte (mugatzen du 5 urtera) ibilgailu hidrioentzat ezarritako hobaria edukitzeko.**
- d) **Aldatzen da hiri izaerako lurren balio gehitzearen gaineko zergaren zerga tasa, % 2 gehitzen (pasatzen da % 6,62 izatetik % 6,7524 izatera), nahiz eta, katastroa berriskusteagatik (lurzorua balioa jaitea), espero den aldaketen efektu bateratuak ekarriko duela presio txikiagoa 2017rako.**

Kapitulua laburpen moduan, egiaztatu daiteke, ez bada OHZn etxe jabeen eraman nahi zaiela industria lurzoruan izandako presio jaitsiera, 3 zerga figura nagusietan, Hiri OHZ, JEZ eta ibilgailuen zerga, ia ez dagoela maniobra marjinarik erabaki berriak hartzeko, eragingo dutenak zerga tasetan. Beharrezkotzat jotzen da urgentziaz egitea azterketa bat udal zergen inguruan, jarduteko eta erabakitzeko gaitasuna gordetzeko udalei. Erabaki zehatzak, geroago hartu daitezkeenak, hartuko dira beste irizpide batzuei begira, izango direnak politiko/sozialak, korporazio bakoitzak egoki irizitakoak, baina erreibindikatzeko da gaitasuna edukitzea erabakitzeko, zeren gaur gaurkoz hori geratu da hutsaren hurrengoan.



BIGARREN KAPITULUA – ZEHARKAKO ZERGAK - 325.001,00 euro

Gutxitu da % 50ean 2016ko aurrekontuko kopurua, eta aurrekontu aurreikuspenak oinarria du ekitaldi horretan benetan lortutako diru sarreretan (kontuan hartu barik aurreko ekitaldietatik etorritako likidazioak). Erabili da irizpide zuhur bat aurrekontua egiteko, eta ez da jaso diru sarrerarik tamaina bateko proiektu ez ohikoengatik.

Kapitulu honetako diru sarrerako kontzeptu bakarra da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga, eta honek ez du izan aldaketa esanguratsurik 2016rako, zerga tipoa legez baimendutako gehienez dago eta (%5 obra, eraikuntza edo instalazioaren balioaren gainean).

Aurrekontuko kopurua dago udal kontrolatik guztiz kanpo dauden faktoreetatik, zehazki, pentsatutako diru sarrerak lortzeko, zergadunek obra proiektuak egin behar dituzte (udal lizentzai behar dutenak), zenbateko gordina guztira 6,5 milioi euro. Baldin eta ekitaldian desbideraketa esanguratsuak izaten badira aurreikuspenaren eta benetan egiten denaren artean (bai positiboak bai negatiboak), doitu egin beharko lirateke, betiere bermaturik egoten bada aurrekontuaren oreka gastuen eta diru sarreren artean.

Bestalde, bereizten jarraitzen dugu diru sarreren kontu saila -EIOZ Garaia-tik datorrena eta EIOZ orokorra, gainerako eremuetan, baina Garaia guneari dagokionez, aukeratu dugu 1 € jartzea aurrekontuetan, handitu egin ahal izango dena. Horrela, diru sarrerarik lortuz gero, horien kontura handitu ahal izango dira Garaia S.Coop.ri ordaindu beharreko kopuruak, 2010eko urriaren 7an osoko bilkuran hartutako akordioaren arabera, Udalak onartu baitzuen Garaia S.Coop. entitatearen kapitala handitzea, baina kopuruak emango dira baldin eta diru sarrerak benetan sortzen badira zerga horretan.

Azkenik, 2017ko aurrekontuan, kapitulu horretan bertan, partida bat sartu da ekitaldian egin behar diren ikuskatze lanen ondorioz lortzen diren diru sarrerak biltzeko, 25.000 euroan kuantifikatuak, komenigarritzat jotzen baita hura bereizita kontabilizatzea.

HIRUGARREN KAPITULUA – TASAK ETA PREZIOAK - 7.158.500 euro

Igotzen da % 0,53, 2016ko aurrekontuaren aldean.

Osoko bikurak onartuta 2016ko urriaren 25ean 2017ko ordenantza fiskalen aldaketak, aldaketa nagusiak izan dira:

- Tarifa, edateko ura hornitzeagatik, % 1 gehitzea.
- Ez gehitzea tasa zaborra bildu eta eramateagatik, eta aldatzea eskakizunak edo betebeharrak konpostajearen hobariaz gozatzeko.
- Tarifa berri bat sortzea txosten teknikoak emateko eraikuntzak ikuskatzeari buruz, eta gainerako zerbitzuetarako, tutoretzapeko etxebizitzak izan ezik, aldaketarik gabe uzten baitira, tarifak gehitzen direa %2.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, oinarri hartu dugu 2016 ekitaldiko diru sarrera errealei eta balioetsitakoei buruzko informazioa.



Azkenik, adierazi behar da kapitulu honetako lau diru sarrera kontzeptu nagusiek, hala nola ur eta zabor tasak, enpresa hornitzaileek jabetza publikoa okupatzearen tasa eta kirol sailaren diru sarrerak (kiroldegietako tasak), egiten dutela kapitulu honetako zenbatekoaren % 80,4, zehazki, 5,75 milioi euro.

LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 15.385.645 euro

Balio absolutuetan handitu da 0,37 milioi euro, 2016ko aurrekontuaren aldean, eta % 2,46 portzentaje terminoetan.

Gehikuntza hori azaltzeko, hona hemen arrazoi nagusiak:

- Lehena dator, dagoeneko aipatua memoria honetako hainbat ataletan, 2017rako Foru Funtsaren diru sarreren estimaziotik; Arrasaterentzat da 14.047.880 euro, 0,27 milioi euro inguru gehiagoa 2016ko aurrekontuan jarritako kopurua baino (% 2). Alderatzen badugu 2015eko aurre likidazioari edo itxiera estimazioari buruz, gehitze handixeagoa izango genuke (+0,49 milioi euro, ▲% 3,6), izan ere, espero dugu 2016an benetako kopurua geratzea hasieran aurrekontuan jasotako kopuruaren azpitik. Kalkulu hori, era berean, oinarrituta dago Foru Aldundiak horri buruz egindako aurreikuspenetan, zehazki % 3,4ko igoera batean, hitzartutako zergen diru bilketan, 2016ko aurrekontuko kopuru estimatuaren aldean. Aurrekontuko gehikuntza hori egotzi dakioke, funtsean, Foru Aldundiak berak emandako informazioaren arabera, faktore hauen konbinazioari:

a.- Ekonomia hazi egingo delako aurreikuspena, termino errealetan, % 3,4 hazi ere.

b.- Gipuzkoak Eusko Jaurlaritzari eman beharrekoaren koefiziente horizontala aldatzea, zeina pasatzen den % 32,98 izatetik 2016an % 32,98 izatera 2017an.

Azken batean, ematen du 2017ko foru bilketaren aurreikuspena eta, deribazioz, Foru Funtsaren kopuruak oinarritzen direla Gipuzkoan ekonomia hazi egingo delako aurreikuspen batean. Edozelan ere, azken urteotan bezalaxe, elementu inportante bat dago, ezбайдan dagoen administrazio zentralaren eta autonomia erkidegoaren artean (egia esan Foru Aldundiek dute gaitasuna dirua biltzeko), Estatuari zenbat eman, kupo kontzeptuan. Ondorioen tamaina ekonomikoak, azkenean hitzartutako zenbatekoaren arabera (ematen du desadostasuna ezingo dela luzatu mugarik gabe), aldarazi dezake nabarmen zenbat kobratuko duten udalek azkenean (2016ko bukaeran ezbaian dagoen kopurua aldatu daiteke marjina negatiboan, 0-900 mila euro artean). Hortaz, jasota utzi behar da zer zalantza dagoen, nahiz eta hori, behintzat 2015era arte, gorde egin duen udalak eta ez duela erabili gastu berriak finantzatzeko, sorpresa desatseginik ez izateko, udal finantzak desorekatu ditzaketanak.

- Bigarren arrazoa, 2017rako gehikuntza hartzen duena, adierazita dago diru sarreren memoriaren hasieran, zeina etorri datorren, hala erabakita Finantzen Euskal Kontseiluak 2015eko urriaren 14an, funts berezi batetik Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzeko. 2016an funts hori hornitu da 10 milioi euroekin, eta udalerrien artean banatuko da. 2017rako, jasota dago funtsetik hornitzea 20 milioi euro, eta banatuko da udalen eta foru aldundien artean. Udalen kasuan diru sarrera horiek izango dira udal eskumeneko gizarte prestazio eta zerbitzu berriak



finantzatzeko, edo gutxi garatu direnak, aurreikusita daudenak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen Kartera Dekretuan. Horri buruz, kontsiderazio hori izango lukete pertsona zaintzaileentzako laguntza zerbitzuek, pertsona nagusientzako eguneko laguntza zerbitzuek, pertsona nagusientzako alojamendu zerbitzuek (tutoretzapeko etxeak edo etxe komunitarioak) eta tutoretzapeko etxeek bazterkeria arriskuko pertsonentzat.

Oraindik ez dakigu zer kopuru zehatz egokitu dakioken Arrasateko Udalari banaketa horretan, baina estimazio bat egin da, 150 mila eurokoa, kontzeptu hori dela-eta.

Kapitulua gainontzeko kontu sailetan, aurrekontuan jaso ditugu diru laguntza duten programei dagozkien zenbatekoak, azken ekitaldian finkatu diren programenak (EJ – Gizarte Larrialdietako Laguntzak, 241 mila euro, Lanbide – enplegu sustapeneko kontratuak, 120 mila euro, Foru Aldundia – Etxeko Laguntza, 180 mila euro, HABE – udal euskaltegia, 385 mila euro, kultura jarduerak, liburutegiak, Mankomunitatea-Udalako IE, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia-EBPN, Foru Aldundia-gazteria, kirola eta emakumea, eta abar).

BOSGARREN KAPITULUA – ONDAREZKO DIRU SARRERAK – 138.200 euro

Murriztu da % 22,6, 2016koaren aldean.

Kapitulu honek ez du larregiko garrantzi espezifikorik udalaren diru sarreretan, non diru sarrera nagusiak diren errentamenduak edo errentak, ondarearekin lortuak (% 95, kapituluaren gutxiari buruz). Aldaketa, 2016koari buruz, gertatu da oraingo diru sarrerak egokitu behar izan direlako, zeren 2015/2016 urteetako asmoak, balizko errentamendu batzuei buruz, erosteko aukerarekin, azkenean ez dira gauzatu, eta ez da espero 2017an izatea diru sarrera esanguratsurik, kontzeptu hori dela-eta.

Beste kontzeptu bat, gaur arte garrantzia apur bat izan duena, finantzako diru sarrerak edo udal diruzaintzatik lortutako errendimenduak, nahiz eta espero den diruzaintzan egoera saneatua edukitzea, baina ikusita zer errentagarritasun urria edo baliogabea ordaintzen ari diren finantza entitateak, pasatu da edukitzera izaera ia testimoniala edo hondarrekoa; urteko estimazioa, diru sarrerena 2017an, 4 mila eurokoa.

SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK INORENTZEA - 220.240 euro

Gutxitu da % 4,4 -10,1 mila euro, 2016ko aurrekontuaren aurreikuspenaren aldean.

Kapitulu honetan, erabilitako etxeko olio biltzeko patentearen aprobetxamendua eta ustiapena lagatzeko hitzarmenetik datozen diru sarrerak izan ezik, OLIO3R, SL enpresarekin sinatutakoa 2014-05-13an, 2014-3-19ko osoko bilkuraren akordioa hartu eta gero (indarrean zegoen aurrekoaren ordezkari Fagor S.Coop. eta EKO3R enprekin sinatua, patentea ustiatzeko ardura zuen sozietatea SL bihurtu baitzen, enpresa berrian bazkide berriak sartu baitziren),



gainerako kontzeptuak, gaurko egunez, diru sarrerako esperantza generiko hutsak dira, ez baitago batere operaziorik arrazoizko garapen maila batekin estaliko dituen diru sarrerako aurrekontu aurreikuspenak.

Edozelan ere, historikoki diru sarrerak lortu direnez kontzeptu horien truke eta uste denez arrazoizkoa dela espero izatea operazioen bat gauzatzea (Kataide inorentzea), kopuru “zuhur” bat jarri dugu aurrekontuan gainerako kontzeptuetan, inorentzeak eta hirigintza kargak eta aprobetxamenduak, 211.000 euro, zeinak izan beharko duen jarraipen eta kontrol zorrotza, nahi ez dugun desdoitzerik ez izateko 2017ko kontuetan.

2017rako helduko zaio ondare sailaren berrantolaketa bati, eta lortu nahi dira, beste helburu batzuen artean, ondarea antolatu eta erabiltzea beste kudeaketa tresna bat moduan, bai lagatzeko eta haren erabilera optimizatzeko, bai saldu edo errentabilizatu ahal izateko, interés publikoarentzat ez estrategikotzat hartutako aktiboena (hartu litezkeen erabakiak Zerrajerako eta Uarkapeko lokalei buruz).

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK – 146.200 euro

Gutxitu da % 39,9, 2016ko aurrekontuaren aurreikuspenaren aldean.

Aurreko ekitaldian adierazikoaren moduan, komentatu behar da kapitulu honetako ebaluzioa eta kudeaketa klabea izango dela aukera emateko tamaina bateko proiektuak exekutatzeko, ez badugu gura inbertsio jarduera horren finantzaketa oinarritzea bakarrik zorpetzean, behin egiaztatu eta gero udal aurrezpena (sarrera arruntak ken gastu arruntak) sotzeko ahalmen urria eta epe laburrera albora utzita presio fiskalaren bidea erabiltzea. Hortaz, dagozkion gestioak egin beharko dira, lortzen saiatzeko beste administrazio batzuekin kofinantzaketa konpromisoak (nagusiki Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin) proiektuen exekuzioan. Nolanahi ere, 2017ko aurrekontuari begira, aukeratu dugu irizpide zuhur bat sartzea bakarrik diru sarreren aurreikuspenak, programa finkatuetatik datozenak (hezkuntzako inbertsioak, liburategietako ekipamenduak, energia efizientzia, irisgarritasuna eta lurzoru kutsatuak). Berritasun moduan 2017an, kontabilitate araudi berrian ezarritakoaren arabera, baztertzen dira Mankomunitatean izan daitezkeen soberakinak edo banaketak eragiketa arrunten (III. kap.) eta kapital eragiketen artean (VII. kap.), 2016ra arte sartu direnak oso-osorik III. kapitulan.

Testuinguru horretan planteatzen da udal jarduetarako karpa baten erosketa, Hirigune izeneko E.J.-ko programatik inbertsioaren ia %60ko finantzazioa lortzen baita.

Bestalde, hartarako sortu litezkeen laguntza programak kokatze aldera eta horien kostuan udalari egokitzen zaion portzentajea modu azkar batean lortu ahal izateko, aurrekontuen exekuzio arauetan jaso da aukera bat, hura behar izanez gero, milioi bat euroan gehitzeko maileguz zenbateko osoa, 2017ko ekitaldian sinatu beharrekoa, betiere diru laguntza bidez lortutako finantza portzentajeak eta inbertsioaren guztizko bolumena, % 40 baino handiagoak badira.



ZORTZIGARREN KAPITULUA - FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA – 90.000 euro

Kopuru berdina 2016ko kopuruarekin alderatuta. Oso eragin txikia du aurrekontuan, izan ere, kapitulu honek jasotzen ditu Udalak langileei emandako aurrerakinak itzultzetik datozen diru sarrerak, kontzeptu horretarako onartu zen gastuaren kopuru bera.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 398.436,44 euro

Kapitulu honek jasotzen du zer prebisio duten mailegu berriek, hitzartu beharrekoak datorren urtean.

Kopuru hori behar da 2017ko aurrekontuen bat etortze “teorikoa” izateko, hau da, behar den diru sarrera osagarria gastu guztiak finantzatzeko. Memoria honetako hainbat ataletan esan dugu legezko mugetatik abiatuta, zorpetze berrietarako eta kontuan hartuta, 2016ko ekitaldiaren itxieraren testuinguruan, espero dela soberakin handia izatea (behar diren erreserbekin behin-behinekoa delako, estimatua 2-2,5 milioi euro inguruan), gobernu taldea ahaleginduko da, ahal den neurrian, 2017an mailegu berririk ez egiten. Gaur gaurkoz, ikusita zer-nolako mailari iritsi garen inbertsio proiektu nagusiak zehazteko legealdian, ematen du haren exekuziotik datozen finantza beharrak, gehien bat, 2018an eta 2019an emango direla.

Bestalde, adierazi dugu ere memoria honetako hainbat ataletan (eta erregulatua aurrekontuen exekuzio arauetan) 2017an formalizatu beharreko maileguen kopurua handitu daitekeela beste milioi bat euroan, aurrekontua egonkortzeari eta finantza iraunkortasunari buruz ezarritako legezko betebeharrak bete behar direla kontuan izanik, finantzaketa beharrak izanez gero horiei erantzuteko, beste administrazio batzuekin elkarrekin finantzatzeko inbertsio proiektuetatik datozenak. Aurreikuspen hori egin da uste delako, nahiz eta une honetan ez jakin ziur aukerarik egongo den zentzu horretan, baietz izanez gero, ez litzatekeela logikoa izango uko egitea hura exekutatzeari, udal finantzaketarik ez dagoelako, are gehiago proiektu horiek laguntza portzentajeak eduki ditzaketenean, oso interesgarriak exekuzioa bideragarri egiteko. Aurrekontuaren agirian listoia ezarri da % 40ko finantzaketa portzentajearen mailegu gehigarriaren bidea erabiltzeko, hori guztia kontuan izanik muga hori geroago berriro planteatu daitekeela, osoko bilkurak hala iritziz gero.

Edozelan ere, inportantea da ahalegin bat egitea 2017ko urtean betetzeko aurrekontu egonkortasuneko legezko baldintzak, gehitu barik zorpetze garbia, ekonomia eta finantza plan bat onartu behar izan gabe, izan ere, adierazi dutenez, gertatu daiteke 2017an zorpetzearen arauzko lege esparrua aldatzea udaletan, zeinak malgutuko duen banku kredituetara jotzea urte antzeko inbertsioak egiteko.

Azkenik, eta memoria honetan zehar aipatutakoaren osagarri gisa, aztertuko du zer aldagai eragiten duten udalaren zorpetze indizean, bai eta indize horren eboluzioa ere 1991-2017 aldian.



ALDAGAIEN KOADROA, ERAGINA DUTENAK ZORPETZE INDIZEAN 1991 – 2017 ALDIA

URTEA	ZOR BIZIA MAILEGUAK	INTERES TIPOA, 12/31n	OPER. ARRUNT. LIKID. ESKUB.	ZORPETZE INDIZEA
1991	5.569	13%	10862,7	9,9%
1992	7.286,7	15%	12.550,9	11,5%
1993	9.685,3	8,75%	12.337	11,5%
1994	11.741,4	8,65%	13.078	14%
1995	13.052,2	9,25%	13.477,7	15,6%
1996	12.001,6	6,35%	14.946	11,2%
1997	11.025,6	4,86%	15.971,9	9,6%
1998	9.992,4	3,36%	16.194,9	9,5%
1999	8.852,3	3,39%	17.340,4	8,6%
2000	7.728,4	5%	19.833,4	7%
2001	8.375,1	3,5%	18.784,2	7,8%
2002	8.935,3	2,9%	19.167,7	9,8%
2003	7.506,1	2,12%	21.070,8	8,6%
2004	5.823,6	2,16%	24.461,2	7,6%
2005	10.004,7	2,49 %	24.549,4	9,3 %
2006	9.874,7	3,73%	27.650,8	5,9 % (4)
2007	8.647,5	4,68%	28.870,84	5%
2008	7.587,2	3,45%	28.469,48	4,7%
2009	9.582,8(3)	1,2%	26.072,0	8,5%(3)
2010	8.179,3(3)	1,52%	27.608,6	8%(3)
2011	9.144,5(3)	2%	25.631,8	10,1%(3)
2012	6.706,3(3)	0,75%	26.665,2	9%(3)
2013	4.393,7	0,75%	27.335,6	4,1% (4)
2014	3.328,7	0,40%	29.347,6	3,4%
2015	2.362,6	0,40%	32.485,2	2,3%
2016 (1)	1.642	0,15%	30.500	1,1%(4)
2017(2)	1.330,3	0,15%	30.665,6	1,08%

(1) Itxiera estimazioaren arabera.

(2) Aurrek. datuei buruz, ez da jotzen beharrezkotzat 2017rako aurreikusitako mailegua

(3) Zorraren eta zorpetzearen eraginetarako, 2009ko UFFFatik Foru Aldundiarekin dugun saldo negatiboa sartuz, intzidentzia handia baitu finantza kargetan, hiru urtean ordaindu behar baitugu, 2011-2013. Zor moduan zenbatu ezean, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko zorpetze indizea izango litzateke, urtealdi bukaeran, %4,5, %4,2, %6 eta %5, hurrenez hurren.

(4) Beheraka "ezohikoa" gertatu da, finantza kargak jaitsi direlako, 2005etik 2 mailegu guztiz amortizatzean. Antzeko egoera, 2009ko foru funtsaren saldo negatiboa itzultzea amaitu izanagatik eta 2 mailegu amortizatu/bertan behera utzi izanagatik.

(5) Aurrekontuan erabilitako interes tipoa, hurrengo urteko finantza kargak kalkulatzeko

Koadro honetan ikusi daiteke zelan erlazionatzen diren euren artean zorpetze indizea zehazten duten aldagaiak. Horrela, adibidez, 1993 urtean gertaturikoa, 2,4 milioi euroan igo zen zor bizia eta, nahiz eta diru sarrera gutxiago izan operazio korranteak direla-eta, horrek ez zuen ekarri zorpetze indizea igotzea, interes tipoa ikaragarri jaitsi zen eta.



Edozelan ere, interes tipoa egonkortu denez apur bat, 1996/2017, ikusten dugu zorpetze indizea dabilela ekitaldi bakoitzeko zor biziaren arabera, amortizazio erritmoaren arabera eta Ekitaldi bakoitzeko diru sarrera arrunten eboluzioaren arabera!! Atal hauen eraginaren lagin garbia da behartuta egon ginela hiru urtean Foru Aldundiari 2009ko UFFFen saldo negatiboa itzultzen, 3,3 milioi euro, eta epealdi horretan ia bikoiztu egin zen 2009ko ekitaldirako azken zorpetze indizea. Indize hori nabarmen jaisten da 2013tik aurrera, 2 mailegu guztiz amortizatu eta gero (Kutxa eta BBVA) eta behin betiko Foru Aldundiarekin genuen zorra kitatu eta gero.

Ez denez eskatu mailegu berririk 2011tik aurrera, interes tipoak egonkor jarraitzen duenez, zorraren zenbatekoa jaitsi denez eta azken urteotan diru sarrera arruntak hazi egin direnez, apurka-apurka eta etenik gabe, behintzat, 2015era arte, elementu horien guztien ondorio bateratuak sortu du serie osoko zorpetze indize baxuenak izatea 2013-2016 aldikoak.

Honekin batera doan grafikoan ikusi daiteke zein den zor biziaren eboluzioa, maileguetan eta baliabide arruntek likidatutako eskubideetan, eta zein den zorpetzearen eboluzioa 0tik %25era (baimendutako gehieneko muga gisara definiturik).

